

UDALERRI EUSKALDUNAK EAEn: EGOERA ETA BILAKAERA, 1981-2011

Hurbilpen deskriptiboa zentsuetako
datuen ustiaketa bidez

Iñaki Iurrebaso Biteri

SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA



Argitaratzailea: Soziolinguistika Klusterra

Martin Ugalde Kultura Parkea, 2014o Andoain

Egilea: Iñaki Iurrebaso Biteri (Soziolinguistika Klusterra)

Koordinatzailea: Olatz Altuna Zumeta (Soziolinguistika Klusterra)

Creative Commons: BY, NC



Diseinua: BLANCO (blanco@blanco-sg.com)

ISBN: 978-84-943708-1-6

Andoain, 2015



AURKIBIDEA

1. UDA LERRI EUSKALDUNAK EAEN, 2011: EGOERAREN ARGAZKIA ETA TESTUINGURUAN KOKATZEA	5
1.1. Udalerrri euskaldunen operatibizatzea: euskararen indizeak %70eko balioa gainditzen duenean	5
1.2. Udalerrri euskaldunak EAEn, 2011. Urtean: 126 udalerrri, 2.548 Km ² , 335.729 Biztanle, 235.019 Euskaldun	5
1.3. EAEko 126 udalerrri euskaldun horietatik 56 UEMAko kide dira eta gainerako 68ak ez	7
1.4. EAEko udalerrri euskaldunen oinarritzko ezaugarritze demografikoa: herri txikiak dira gehienak	8
1.5. EAEko udalerrri euskaldunen joera demografiko orokorra hazkunde apalekoa izan da 1981-2011 bitartean	10
1.6. Udalerrri euskaldunen ezaugarritze soziolinguistikoa, 2011	11
1.6.1. Hizkuntza-gaitasuna	11
1.6.2. Lehen hizkuntza	12
1.6.3. Hiztunen hizkuntza-bilakaera	13
1.6.4. Etxean darabilten hizkuntza	14
1.7. Atalaren ondorioak labur	15
2. UDALERRI EUSKALDUNEN BILAKAERA EGOKI DESKRIBATZEKO TXOSTEN HONETAN JARRAITUKO DUGUN IKERKETA-PLANA LAU URRATSETAN (METODOZKO PARENTESI BAT)	16
3. HIZKUNTZA-GAITASUNAREN BILAKAERA EAEKO HERRIALDE, ESKUALDE ETA UDALERRIETAN	18
3.1. Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera EAEn, herrialdez herrialde eta eskualdez eskualde	18
3.2. Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera, udalerrriak	25
3.3. Atalaren ondorioak labur	29
4. EAEKO UDALERRI EUSKALDUNEN (ETA GAINERAKOEN) BILAKAERA, 1981-2011	30
4.1. Azterketarako bi multzo: udalerrri euskaldunak eta gainerakoak	30
4.2. Biztanle kopurua eta euskaldun kopurua udalerrri euskaldunetan (eta gainerakoetan), 1981-2011 bilakaera	30
4.3. Hizkuntza-gaitasuna udalerrri euskaldunetan (eta gainerakoetan), 1981-2011 bilakaera	31
4.4. Lehen hizkuntza udalerrri euskaldunetan (eta gainerakoetan), 1986-2011 bilakaera	32
4.5. Etxeko hizkuntza udalerrri euskaldunetan (eta gainerakoetan), 1991-2011 bilakaera	33
4.6. Atalaren ondorioak labur	34
5. UDALERRI MULTZOEN BILAKAERA, JATORRIZKO EUSKALDUN-DENTSITATEAREN ARABERA	35
5.1. Udalerrri multzoak, duela 30 urteko euskaldunen dentsitatearen arabera, hizkuntzen egoera sozialean gertatu diren aldaketa-joerak atzeman nahian	35
5.2. Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera jatorrizko dentsitate multzoetan, 1981-2011	35
5.3. Lehen hizkuntzaren bilakaera jatorrizko dentsitate multzoetan, 1986-2011	37
5.4. Etxeko hizkuntzaren bilakaera jatorrizko dentsitate multzoetan, 1991-2011	39
5.5. Atalaren ondorioak labur	41

6. HABITAT SOZIOLOGIKOEN BILAKAERA EAEN, 1981-2011.....	42
6.1. Multzo mugikorrak habitaten bilakaera aztertzeko	42
6.2. Habitaten bilakaerari buruzko datuak era xehatua antolatze- lehenengo ahalegina taula erraldi batzuen bidez	42
6.3. Euskararen habitaten bilakaera zenbakitan, 1981-2011	43
6.4. Udalerrak multzoz nola aldatu diren azken 30 urteotan	45
6.5. Aurreko ariketa bera, erabileraren bilakaeran oinarrituta	46
6.6. Atalaren ondorioak labur	47
7. ONDORIOAK	49
7.1. EAEko udalerri euskaldunak, 2011	49
7.2. Aztertutako adierazleen arabera, euskarak atzera egin du udalerri eus- kaldunetan azken bi hamarkadotan, gainerako udalerrietan ez bezala	50
7.3. Udalerrak euskaldunen barruan ere alde handiak daude: oro har, udalerri euskaldunenetan izan dira galerarik handienak	50
7.4. Hamarkadakako irakurketa bat: euskararen atzerakako joera geroz eta indartsuago udalerri euskaldunetan	51
7.5. Habitaten bilakaera: muturreko habitatak agortzen	52
7.6. Azken hitzak udalerri euskaldunen garrantziari buruz	52
8. ERANSKINAK	54
E1. Taula. Hizkuntza-gaitasuna, herrialdeka, eskualdeka eta udalerrika. EAE, 2011	54
E2. Taula. Udalerrak euskaldunak eta gainerakoak: udalerrak, kilometro koadroak, biztanleak eta horietan bizi diren euskaldunak. EAE, eskualdez eskualde, 2011	58
E3. Taula. Euskaldunek hiztun guztiekiko osatzen duten ehunekoa, lehen hizkuntza euskara izan dutenen ehunekoa eta etxean nagusiki euskara erabiltzen dutenen ehunekoa EAEn, herrialdeka, eskualdeka eta udalerrika, 1981-2011	60
E4. Taula. Biztanleria udalerri euskaldunetan eta gainerakoetan. EAE, 1981-2011	66
E5. Taula. Euskaldunak udalerri euskaldunetan eta gainerakoetan. EAE, 1981-2011	66
E6. Taula. Hizkuntza-gaitasuna udalerri euskaldunetan eta gainerakoetan. EAE 1981-2011	66
E7. Taula. Lehen hizkuntza udalerri euskaldunetan eta gainerakoetan. EAE 1981-2011	67
E8. Taula. Etxeko hizkuntza udalerri euskaldunetan eta gainerakoetan. EAE 1981-2011	67
E9. Taula. Hizkuntza gaitasunaren bilakaera, udalerrak 1981eko dentsitate mailaren arabera multzokatuta. EAE, 1981-2011	68
E10. Taula. Lehen hizkuntzaren bilakaera, udalerrak 1981eko dentsitate mailaren arabera multzokatuta. EAE, 1986-2011	69
E11. Taula. Etxeko hizkuntzaren bilakaera, udalerrak 1981eko dentsitate mailaren arabera multzokatuta. EAE, 1991-2011	70
E12. Taula. Udalerrien multzokatze aldakorra, euskaldunen %aren arabera. Araba, 1981-2011	71
E13. Taula. Udalerrien multzokatze aldakorra, euskaldunen %aren arabera. Bizkaia, 1981-2011	73
E14. Taula. Udalerrien multzokatze aldakorra, euskaldunen %aren arabera. Gipuzkoa, 1981-2011	75
E15. Taula. Udalerrien multzokatze aldakorra, euskaldunen %aren arabera. EAE, 1981-2011	77

1.

UDALERRI EUSKALDUNAK EAEn, 2011: EGOERAREN
ARGAZKIA ETA TESTUINGURUAN KOKATZEA**1.1. Udalerrri euskaldunen operatibizatzea: euskararen indizeak %70eko balioa gainditzen duenean**

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMAk) eskaturik, EAEko udalerrri euskaldunen egoera eta bilakaera deskribatzea da txosten honen xede nagusia. Oraingoz ez da posible azterketa hau bera Nafarroa Garaiko datuekin osatzea (eta zer esanik ez Lapurdi, Nafarroa Behere eta Zuberokoekin). Nahiko genuke hutsune horiek ahalik eta azkarren betetzeko moduan izatea.

EAEko udalerrri euskaldunen egoera eta bilakaera aztertzeke, azken 30 urteotako zentsuetako datuak aztertuko ditugu, EUSTATEk eskainitako datuetan oinarrituta. Lan horretan, betiere, udalerrri euskaldunen errealitatea bere testuinguruan kokatze aldera, EAEko udalerrri guztietako datuak erabili eta aztertuko ditugu, izan udalerrriak euskaldun edo ez.

Txosten honetarako, udalerrri bat “euskaldun” den edo ez erabakitzeke, UEMAk darabilen irizpidea hartuko dugu abiapuntu. Horrela, udalerrri euskalduntzat hartuko ditugu euskararen indizean %70eko balioa gainditzen duten udalerrriak. Udalerrri baten euskararen indizea honela kalkulatzeko da: udalerrri horretan bizi diren hiztunen artean euskaldunek osatzen duten ehunekoa eta ia-euskaldunek osatzen duten ehunekoa erdiaren batuta, eta bat dator EAEko administrazioan lanpostuen hizkuntza-profila erabakitzeke erabili ohi den derrigortasun indizearekin.

$$\text{Euskararen indizea} = \text{Euskaldunen \%} + (\text{Ia euskaldunen \%} / 2)$$

Txosten honetan, hortaz, udalerrri euskaldunak zein diren finkatzerakoan, UEMAk darabilen irizpidea eta izendapena (“udalerrri euskaldunak”) erabiliko ditugu. Eranskineko E1 taulan, EAEko udalerrri guztiak azaltzen dira, hizkuntza-gaitasunari buruzko datuekin eta euskararen indizea kalkulaturik (berdez nabarmendu dira irizpide hori gainditzen dutenak eta, hortaz, “udalerrri euskalduntzat” hartuko ditugunak).


1.2. Udalerrri euskaldunak EAEn, 2011. urtean: 126 udalerrri, 2.548 km², 335.729 biztanle, 235.019 euskaldun

Arestian aipatutako %70eko irizpidean oinarrituta, hona hemen udalerrri euskaldunak buruzko hiru oinarritzko datu:

- EAEko 251 udalerrrietatik erdiak (126) udalerrri euskaldunak dira.
- Udalerrri horietan 335.729 biztanle bizi ziren 2011. urtean (EAEko biztanle guztien %15,4).
- Herri horietan bizi ziren euskaldunak 235.019 ziren, EAEko euskaldun guztien hamarretik hiru (%29,8).


Datuak herrialdeka eta eskualdeka begiratuta, alde aipagarriak ikusten dira (herrialdekako datuetarako, ikus 1. taula hemen behean, eta eskualdekakoetarako, ikus E2 taula eranskinean). Gipuzkoan, esaterako, herritarren ia herenak (%31,9) hango 68 udalerri euskaldunetan bizi dira; bizkaitarren artean hamarretik bat bizi da hango 57 udalerri euskaldunetako batean (%9,5); Araban, azkenik, herritarren %0,5 besterik ez dira bizi hango udalerri euskaldun bakarrean.

A. Grafikoa: udalerri euskaldunetan bizi direnek herritar guztiekiko osatzen duten ehunekoa, herrialdearen arabera. EAE, 2011 (%)



Datuak bestela irakurrita, EAEko udalerri euskaldunetan bizi diren 335.729 herritarretatik, bi herenak (%67,0) Gipuzkoan bizi dira, ia herenak Bizkaian (%32,5) eta gainerako %0,5^a Aramaion (Araba).

B. Grafikoa: udalerri euskaldunetan bizi diren herritarrak, herrialdearen arabera. EAE, 2011 (%)




Aldeak, jakina, are nabarmenagoak dira datuak eskualdez eskualde aztertuta (ikus eranskineko E2 taula). Muturretara joz, badira EAEko lau eskualde (Gernika-Bermeo, Lea-Artibai, Tolosaldea eta Urola Kosta) udalerri guzti-guztiak udalerri euskaldunak dituztenak. Beste muturrean, badira sei eskualde non udalerri bakarra ere ez den udalerri euskalduna: Arabako Ibarra, Arabako Lautada, Arabako Mendialdea, Errioxa Arabarra, Kantauri Arabarra eta Enkartzioak.

	Kopuruak				Ehunekoak			
	Udalerriak	Km2	Biztanleak (2011)	Euskaldunak (2011)	Udalerriak	Km2	Biztanleak (2011)	Euskaldunak (2011)
EAE	251	7.085,8	2.179.815	789.439	100,0	100,0	100,0	100,0
Udalerri euskaldunak (indizea > %70)	126	2.548,0	335.729	235.019	50,2	36,0	15,4	29,8
Gainerako udalerriak	125	4.537,8	1.844.086	554.420	49,8	64,0	84,6	70,2
Araba	51	2.963,2	321.254	74.383	100,0	100,0	100,0	100,0
Udalerri euskaldunak (indizea > %70)	1	73,3	1.535	1.237	2,0	2,5	0,5	1,7
Gainerako udalerriak	50	2.889,9	319.719	73.146	98,0	97,5	99,5	98,3
Bizkaia	112	2.213,3	1.153.351	350.380	100,0	100,0	100,0	100,0
Udalerri euskaldunak (indizea > %70)	57	1.076,0	109.173	77.069	50,9	48,6	9,5	22,0
Gainerako udalerriak	55	1.137,3	1.044.178	273.311	49,1	51,4	90,5	78,0
Gipuzkoa	88	1.909,3	705.210	364.676	100,0	100,0	100,0	100,0
Udalerri euskaldunak (indizea > %70)	68	1.398,7	225.021	156.713	77,3	73,3	31,9	43,0
Gainerako udalerriak	20	510,6	480.189	207.963	22,7	26,7	68,1	57,0

1. Taula. Udalerri euskaldunak eta gainerakoak: udalerriak, kilometro koadroak, biztanleak eta horietan bizi diren euskaldunak. EAE, herrialdez herrialde, 2011

1.3. EAEko 126 udalerri euskaldun horietatik 56 UEMako kide dira eta gainerako 68ak ez

Eranskinen E1 taulan, hizkuntza-gaitasunari buruzko datuak aurkeztu ditugu, herri herri, 2011ko zentsuko datuetan oinarrituta. Taula horretan bertan, UEMako kide diren udalerriak nabarmendu ditugu. Informazio hori bera oinarri hartuta, mapa hau sortu dugu.



I. Mapa. UEMako udalerriak, beste udalerri euskaldunak eta gainerakoak. EAE, 2011

Txosten honetan, udalerri euskaldunen egoeraz eta bilakaeraz arituko gara nagusiki, udalerri horiek UEMako kide diren edo ez bereizi gabe. Aurrera egin baino lehen, ordea, egin dezagun UEMako kide diren udalerrien argazki orokor labur bat.

EAEko 126 udalerri euskaldunetatik 56 dira UEMako kide. Oro har, herrien ezauzgarritasun erreparatuz, ez dirudi alde handirik dagoenik UEMako kide diren eta ez diren udalerri euskaldunen artean. Hala ere, esan beharra dago, batetik, UEMako kide diren udalerriak, batez beste, ez direnak baino handixeagoak direla, eta, bestetik, UEMako kide direnak are “euskaldunagoak” direla kide ez direnak baino. Azalpen labur hori eginda, hemendik aurrera udalerri euskaldun guzti-guztiek arituko gara, UEMako kide diren edo ez bereizi gabe.

2. Taula. Udalerrriak, biztanleak eta euskaldunak, UEMAko kide diren udalerrietan, beste udalerri euskaldunetan eta gainerakoetan. EAE, 2011

	Udalerrri kopurua	Km2	Biztanleak (2011)	Udalerrrien batez-beste biztanleria*	Euskaldunak (2011)	Euskaldunen %a (hiztunakiko)
UDALERRI GUZTIAK	251	7,086	2,179,815	8,685	789,439	37.2
- Udalerrri euskaldunak	126	2,548	335,729	2,665	235,019	72.3
- UEMAko udalerriak	56	1,142	176,194	3,146	128,161	75.1
- Baldintzak bete arren EZ dira UEMAkoak	70	1,406	159,535	2,279	106,858	69.2
- Udalerrri ez euskaldunak	125	4,538	1,844,086	14,753	554,420	30.9

*biztanleak/udalerriak


1.4. EAEko udalerri euskaldunen oinarrizko ezaugarritze demografikoa: herri txikiak dira gehienak

EAEko 126 udalerri euskaldun horietako gehien-gehienak txikiak dira. Horrela:

- 64 udalerri (udalerri euskaldun guztien erdiak) ez dira 1.000 biztanlera iristen.
- Beste 41 udalerrik, 1.000 eta 5.000 biztanle bitartean dituzte.
- Handiagoak 21 dira, 5.000 eta 25.000 biztanle artekoak.
- Ez dago udalerri euskaldun bakar 25.000 biztanleak gainditzen dituenik.


Horiek horrela izanda ere, ez daiteke esan udalerri euskaldunetan bizi diren biztanle gehienak herri txiki-txikietan bizi direnik. Aitzitik, 5.000 biztanle baino gehiagoko herrietan bizi dira gehienak. Zehazki, udalerri euskaldunetako biztanleen bi herenak (%67,3) 5.000-25.000 biztanle dituzten 21 herri ertainetan bizi dira; laurdenak (%24,3) 1.000-5.000 bitartekoetan eta %8,4 besterik ez 1.000tik beherako 64 udalerri txikietan.

C. Grafikoa. Udalerrri euskaldunak, neurriaren (biztanle kopuruaren) arabera: udalerriak eta horietan bizi diren biztanleak. EAE, 2011




Udalerrri euskaldunak eta gainerakoak alderatzen baditugu, oro har, udalerri euskaldunen artean herri txikiek pisu handiagoa dutela ikusiko dugu, alde handiarekin, gainera: udalerri euskaldunetan bizi diren herritarren artean bakar 25.000 biztanle baino gehiagoko udalerrian bizi: udalerri ez-euskaldunen kasuan, berriz, kopuru hori %72,1era iristen da.

D. Grafikoa. Udalerrri euskaldunetan eta gainerakoetan bizi diren biztanleak, bizi diren udalerriaren neurriaren arabera. EAE, 2011



Kopuruak bestela irakurrita (ikus E grafikoa), EAEn 1.000 biztanletik beherako herrietan bizi diren hamar herritarretatik sei (%59,6) udalerri euskaldunetan bizi dira, eta berdin 1.000-5.000 bitartekoetan bizi direnen %44,8 eta 5.000-25.000 bitartekoetan bizi direnen %35,5 ere. Aitzitik, 25.000 biztanletik gorako herrietan edo hiriburuetan bizi diren herritarren artean bakararra ere ez da bizi udalerri euskaldunetan (neurri horietako udalerri bakarrean ere ez baita iristen euskararen indizea %70era).



E. Grafikoa. Udalerriak euskaldunak diren edo ez, udalerrien neurriaren arabera. EAE, 2011

Datuak dezente sinplifikatuz esan daiteke, gaur egun ere, joera orokor gisa, zenbat eta herri txikiagoa izan, orduan eta euskaldunagoa dela; eta zenbat eta handiagoa, orduan eta erdaldunagoa. Datuak, oraindik ere, argiak dira alde horretatik, nahiz eta azken hamarkadetan joera aldatzen ari den eta *euskaldun urbanoak* geroz eta pisu handiagoa hartzen ari diren euskaldun guztien kolektiboan. Izan ere, EAEko euskaldun gehienak herri handiagoetan edo hiriburuetan bizi dira dagoeneko: 2011. urtean, euskaldunen erdiak inguru 20.000 biztanletik gorako udalerrietan bizi dira, eta ez dira %15era iristen euskaldunen artean 5.000 biztanle baino gutxiagoko herrietan bizi direnak. Dena den, ikuspegia udalerrietan jarrita, horrek ez du ezeztatzen paragrafo honen hasieran aurkeztu dugun ideia: oro har, herri txikiak dezente euskaldunagoak direla handiak baino.

	Kopuruak			Ehuneko bertikalak (%)			Ehuneko horizontalak (%)		
	Udalerri guztiak	Udalerri euskaldunak (indizea > %70)	Gainerako udalerriak	Udalerri guztiak	Udalerri euskaldunak (indizea > %70)	Gainerako udalerriak	Udalerri guztiak	Udalerri euskaldunak (indizea > %70)	Gainerako udalerriak
GUZTIAK	251	126	125	100,0	100,0	100,0	100,0	50,2	49,8
1.000 baino gutxiago	101	64	37	40,2	50,8	29,6	100,0	63,4	36,6
1.000-5.000	80	41	39	31,9	32,5	31,2	100,0	51,3	48,8
5.000-25.000	55	21	34	21,9	16,7	27,2	100,0	38,2	61,8
25.000-100.000	12		12	4,8	0,0	9,6	100,0	0,0	100,0
Hiriburuak	3		3	1,2	0,0	2,4	100,0	0,0	100,0

3. Taula. Udalerri euskaldunak eta gainerakoak, tamainaren arabera. EAE, 2011

	Kopuruak			Ehuneko bertikalak (%)			Ehuneko horizontalak (%)		
	Udalerri guztiak	Udalerri euskaldunak (indizea > %70)	Gainerako udalerriak	Udalerri guztiak	Udalerri euskaldunak (indizea > %70)	Gainerako udalerriak	Udalerri guztiak	Udalerri euskaldunak (indizea > %70)	Gainerako udalerriak
GUZTIAK	2.179.815	335.729	1.844.086	100,0	100,0	100,0	100,0	15,4	84,6
1.000 baino gutxiago	47.549	28.351	19.198	2,2	8,4	1,0	100,0	59,6	40,4
1.000-5.000	181.915	81.580	100.335	8,3	24,3	5,4	100,0	44,8	55,2
5.000-25.000	618.516	225.798	392.718	28,4	67,3	21,3	100,0	36,5	63,5
25.000-100.000	559.540		559.540	25,7	0,0	30,3	100,0	0,0	100,0
Hiriburuak	772.295		772.295	35,4	0,0	41,9	100,0	0,0	100,0


4. Taula. Udalerri euskaldunetan eta gainerakoetan bizi den biztanleria, udalerrien tamainaren arabera. EAE, 2011

1.5. EAEko udalerri euskaldunen joera demografiko orokorra hazkunde apalekoa izan da 1981-2011 bitartean

Azken 30 urteotan aztergai ditugun 126 udalerri euskaldun horiek hazi edo txikitu egin ote dira? Beste udalerrien maila bertsuan, edo badira aldeak batzuen eta besteen artean? Taula honetan ikus daitekeen bezala, gehiago dira hazi diren udalerri euskaldunak biztanleria galdu dutenak baino: udalerri horien %31,0k hazkunde negatiboa izan dute, baina gainerako %69,0k hazkunde positiboa. Kalkuluak udalerri horietan bizi diren biztanleak kontuan hartuta eginez gero, ikusiko dugu udalerri euskaldunetan bizi diren herritarren %29,7 azken 30 urteotan biztanleria galdu duen udalerri batean bizi direla, eta gainerako %70,3^ak biztanleria handitu duten udalerrietan.

Hazkunde-joera apal hori indartsuagoa izan da, oro har, udalerri euskaldunetan, gainerako udalerrietan baino (ikus F grafikoa).

F. Grafikoa. Udalerri euskaldunetan eta gainerakoetan bizi diren biztanleak, udalerriek azken 30 urteotan izan duten hazkunde demografikoaren arabera. EAE, 2011



5. Taula. Udalerri euskaldunak eta gainerakoak, 1981-2011 bitartean biztanleriak izan duen hazkundearen arabera. EAE, 2011

	Kopuruak			Ehuneko bertikalak (%)			Ehuneko horizontalak (%)		
	Udalerri guztiak	Udalerri euskaldunak (indizea > %70)	Gainerako udalerriak	Udalerri guztiak	Udalerri euskaldunak (indizea > %70)	Gainerako udalerriak	Udalerri guztiak	Udalerri euskaldunak (indizea > %70)	Gainerako udalerriak
GUZTIAK	251	126	125	100,0	100,0	100,0	100,0	50,2	49,8
Hazkunde negatiboa	90	39	51	35,9	31,0	40,8	100,0	43,3	56,7
Hazkunde positibo apala (+%20 baino gutxiago)	85	54	31	33,9	42,9	24,8	100,0	63,5	36,5
Hazkunde positibo handia (+%20 baino gehiago)	76	33	43	30,3	26,2	34,4	100,0	43,4	56,6


6. Taula. Udalerri euskaldunetan eta gainerakoetan bizi den biztanleria, 1981-2011 bitartean biztanleriak udalerri horietan izan duen hazkundearen arabera. EAE, 2011

	Kopuruak			Ehuneko bertikalak (%)			Ehuneko horizontalak (%)		
	Udalerri guztiak	Udalerri euskaldunak (indizea > %70)	Gainerako udalerriak	Udalerri guztiak	Udalerri euskaldunak (indizea > %70)	Gainerako udalerriak	Udalerri guztiak	Udalerri euskaldunak (indizea > %70)	Gainerako udalerriak
GUZTIAK	2.179.815	335.729	1.844.086	100,0	100,0	100,0	100,0	15,4	84,6
Hazkunde negatiboa	1.048.864	99.794	949.070	48,1	29,7	51,5	100,0	9,5	90,5
Hazkunde positibo apala (+%20 baino gutxiago)	607.287	142.166	465.121	27,9	42,3	25,2	100,0	23,4	76,6
Hazkunde positibo handia (+%20 baino gehiago)	523.664	93.769	429.895	24,0	27,9	23,3	100,0	17,9	82,1


1.6. Udalerrri euskaldunen ezaugarritze soziolinguistikoa, 2011

1.6.1. Hizkuntza-gaitasuna¹

2011ko datuen arabera, udalerrri euskaldunetako hamar hiztunetatik zazpi baino gehiagok (%72,3) dakite euskaraz ondo hitz egiten, beste %15,2k ondo ez hitz egin arren ulertu egiten dute edo badakite zer edo zer hitz egiten, eta gainerako %12,5^ak erdaldun elebakarrak dira. Banaketa hori, jakina, ez dator bat gainerako udalerrrietako errealitatearekin, horietan euskararen ezagutza askoz ere apalagoa baita (%30,9 besterik ez dira euskaldunak gainerako herrien multzoan).



G. Grafikoa. Hizkuntza-gaitasuna. EAEko udalerrri euskaldunak, 2011



H. Grafikoa. Hizkuntza-gaitasuna udalerrri euskaldunetan eta gainerakoetan. EAE, 2011

¹ Txosten honetan hizkuntza-gaitasunari buruz ariko garenean, EUSTATen sailkapen laburtua erabili dugu, eta EAEko hiztunak (2 urtetik gorako herritar guztiak) hiru multzotan banatuko ditugu: euskaldunak, ia euskaldunak eta erdaldunak. Kategoria horiek euskararen jakite mailari buruz zentsuan egiten diren lau galderei erantzundakoaren arabera lortu dira (ulertzen duzu?, hitz egiten duzu?, irakurtzen duzu?, eta idazten duzu?). Aukeran ematen diren erantzunak (ezer ez, nekez, eta ondo) konbinatuz, zazpi hiztun-kategoria sortzen dira, eta zazpi horiek bilduz, aipatu ditugun hirurak.

		ULERTU	HITZ EGIN	IRAKURRI	IDATZI
SKALDUNAK	ALFABETATUAK	Ondo	Ondo	Ondo	Ondo
	ERDI-ALFABETATUAK	Ondo	Ondo	Nekez	Nekez
	ALFABETATUGABEAK	Ondo	Ondo	Ez	Ez
EUSKALDUNAK	ALFABETATUAK	Ondo/ Nekez	Nekez	Ondo/ Nekez	Ondo/ Nekez
	ALFABETATUGABEAK	Ondo/ Nekez	Nekez	Ez	Ez
	PASIBOAK	Ondo/ Nekez	Ez	Ez	Ez
ERDALDUNAK		Ez	Ez	Ez	Ez


7. Taula. Hitzunen hizkuntza gaitasuna udalerri euskaldunetan eta gainerakoetan. EAE, 2011

	Udalerri guztiak		Udalerri euskaldunak (indizea > %70)		Gainerako udalerriak	
	Kop.	(%)	Kop.	(%)	Kop.	(%)
GUZTIAK	2.119.586	100,0	324.959	100,0	1.794.627	100,0
Euskaldunak	789.439	37,2	235.019	72,3	554.420	30,9
la euskaldunak	541.562	25,6	49.247	15,2	492.315	27,4
Erdaldunak	788.585	37,2	40.693	12,5	747.892	41,7


1.6.2. Lehen hizkuntza

Udalerri euskaldunetako herritarren erdiek baino gehiagok (%58,4k) euskara izan zuten lehen hizkuntza etxean txikiak zirenean, eta %31,4k gaztelania. Herritarren %6,9k bi hizkuntzak, euskara eta gaztelania izan zituzten lehen hizkuntza gisa, eta %3,3k beste hizkuntza bat. Kasu honetan ere, jakina, aldeak esanguratsuak dira gainerako udalerriekiko (horietan %11,6k besterik ez zuen jaso euskara lehen hizkuntza bakar gisa etxean); aldeak, gainera, hizkuntza-gaitasunean baino handiagoak dira.

I. Grafikoa. Lehen hizkuntza. EAEko udalerri euskaldunak, 2011



J. Grafikoa. Hitzunen lehen hizkuntza udalerri euskaldunetan eta gainerakoetan. EAE, 2011




8. Taula. Hitzunen lehen hizkuntza udalerri euskaldunetan eta gainerakoetan. EAE, 2011

	Udalerri guztiak		Udalerri euskaldunak (indizea > %70)		Gainerako udalerriak	
	Kop.	(%)	Kop.	(%)	Kop.	(%)
GUZTIAK	2.119.586	100,0	324.959	100,0	1.794.627	100,0
Euskara	397.550	18,8	189.866	58,4	207.684	11,6
Gaztelania	1.531.928	72,3	101.967	31,4	1.429.961	79,7
Biak	109.892	5,2	22.398	6,9	87.494	4,9
Beste hizkuntza bat	80.216	3,8	10.728	3,3	69.488	3,9

1.6.3. Hitzunen hizkuntza-bilakaera

Hizkuntza-gaitasuna eta lehen hizkuntza bi aldagaiak aintzat hartuta, “hizkuntza-bilakaera” aldagaia sortzen du Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak. Aldagai bakarrean, egungo hizkuntza-gaitasuna eta txikitan etxean ikasitako hizkuntza laburbiltzen ditu bost urtetik gorako hiztunentzat. Ikus dezakegunez, hiztunen erdiak baino gehiago (%56,4) euskaldun zaharrak dira udalerri euskaldunetan. Horiekin batera euskaldunen multzoa osatzen dutenak, jatorrizko elebidunak (etxean euskara eta erdara biak jaso zituztenak) eta euskaldun berriak alegia, %5,7 eta %10,1 ditugu, hurrenez hurren. Gainerako udalerrietan oso bestelakoa da euskaldunen osaera, eta dagoeneko gehiago dira euskaldun berriak (%16,3) euskaldun zaharrak (%10,0) baino.



K. Grafikoa. 5 Urtetik gorako hiztunen hizkuntza-bilakaera. EAEko udalerri euskaldunak, 2011

L. Grafikoa. 5 Urtetik gorako hiztunen hizkuntza-bilakaera udalerri euskaldunetan eta gainerakoetan. EAE, 2011


	Udalerri guztiak		Udalerri euskaldunak (indizea > %70)		Gainerako udalerriak	
	Kop.	(%)	Kop.	(%)	Kop.	(%)
GUZTIAK	2.056.136	100,0	313.761	100,0	1.742.375	100,0
Euskaldun zaharrak	351.630	17,1	176.816	56,4	174.814	10,0
Jatorrizko elebidunak	81.712	4,0	17.926	5,7	63.786	3,7
Euskaldun berriak	315.840	15,4	31.626	10,1	284.214	16,3
Partzialki euskaldun berriak	361.132	17,6	29.805	9,5	331.327	19,0
Partzialki erdaldunduak	35.790	1,7	6.319	2,0	29.471	1,7
Gutiz erdaldunduak	15.235	0,7	3.686	1,2	11.549	0,7
Erdaldun zaharrak	894.797	43,5	47.583	15,2	847.214	48,6

9. Taula. Bost urtetik gorako hiztunen hizkuntza-bilakaera udalerri euskaldunetan eta gainerakoetan. EAE, 2011


1.6.4. Etxean darabilten hizkuntza

Udalerri euskaldunetan bizi diren lagunen ia erdiek (%47,5) euskara erabiltzen dute gehien etxeko elkarrizketetan, eta herenek baino gehiagok (%37,3k) gaztelania. Bi hizkuntzak maila berean erabiltzen dituzte %13,3k eta beste hizkuntza batean jarduten dira %1,9. Aldagai honetan ere oso handia da gainerako udalerriekiko aldea. Dena den, etxeko erabileran euskara aurretik agertzen den arren, nahiko parekatuak azaltzen zaizkigu euskararen eta gaztelaniaren erabilerak EAEko udalerri euskaldunetan.

M. Grafikoa. Etxean hitz egiten duten hizkuntza. EAEko udalerri euskaldunak, 2011



N. Grafikoa. Etxean hitz egiten duten hizkuntza udalerri euskaldunetan eta gainerakoetan. EAE, 2011



10. Taula. Hitzunek etxeko elkarrizketetan erabili ohi duten hizkuntza udalerri euskaldunetan eta gainerakoetan. EAE, 2011

	Udalerri guztiak		Udalerri euskaldunak (indizea > %70)		Gainerako udalerriak	
	Kop.	(%)	Kop.	(%)	Kop.	(%)
GUZTIAK	2.119.586	100,0	324.959	100,0	1.794.627	100,0
Euskara	288.900	13,6	154.329	47,5	134.571	7,5
Gaztelania	1.627.438	76,8	121.338	37,3	1.506.100	83,9
Biak	159.066	7,5	43.170	13,3	115.896	6,5
Beste hizkuntza bat	44.182	2,1	6.122	1,9	38.060	2,1

1.7. Atalaren ondorioak labur

EAEko 126 udalerri gaitzen dute %70eko balioa euskararen indizean, eta horiek hartuko ditugu txosten honetan “udalerri euskalduntzat”. Udalerririk horietan 335.729 herritar bizi dira, EAEko biztanle guztien %15,4.

Udalerririk euskaldunetarik bakarra ere ez da 25.000 biztanlera iristen, eta gehienak herri txikiak dira. Hala ere, udalerri euskaldunetako herritarren bi herenak 5.000-25.000 bitarteko udalerrietan bizi dira.

2011ko udalerri euskaldunak multzo gisa hartuta, ikusiko dugu 126 udalerri horiek biztanleria apur bat gehiago dutela duela 30 urte baino, eta bilakaera demografikoa gainerako herriena baino apur bat positiboagoa izan dela.

Udalerririk euskaldunen profil soziolinguistikoaz, bi ideia:

- Alde esanguratsua dago, batez beste, udalerri euskaldunen eta gainerakoen artean. Ez zitekeen bestela izan, kategorien definizioa hizkuntza-gaitasunean oinarrituta egin dugu eta.
- Hala ere, udalerri euskaldunak ez dira hainbatek pentsa zezakeen edo udalerri horien izendapenak berak (“udalerri euskaldunak”) aditzera eman dezakeen bezain *euskaldunak*. Hona hemen hori argi uzten duten bi datu: batetik, eta gaitasunari dagokionez, herritarren laurdenak baino gehiago (%27,7) ez dira euskaldunak. Bestetik, etxeko erabileraren datua ere hor dago: erabilera aitortuari jaramon eginez gero euskararen erabilera erdararenaren gainetik azaltzen zaigun arren, aldeak ez dira oso handiak: %47,5ek diote euskaraz mintzatzen direla nagusiki etxean eta %37,3k erdaraz. Inkestetan emandako erantzunen eta benetako portaeren artean sarri askotan egon ohi den tarte aintzat hartuta, pentsa daiteke bi hizkuntzen erabilera oso parean ibiliko dela gaur egun udalerri euskaldunetako etxeetan.

2.

UDALERRI EUSKALDUNEN BILAKAERA EGOKI DESKRIBATZEKO TXOSTEN HONETAN JARRAITUKO DUGUN IKERKETA-PLANA LAU URRATSETAN (METODOZKO PARENTESI BAT)

1981etik gaur arte zentsuetan hizkuntzari buruz bildu den informazio-masa izugarri handia da. EUSTATetik udalerrikako informazio xehea eskuratu eta, datu anabasa hori abiapuntu hartuta, azken 30 urteotako joerak sakon eta zehatz deskribatzea izango da gure helburua hurrengo ataletan. Horretarako, lau urratsetan gauzatuko dugu gure ikerketa-plana:

- Lehen hurbilpen gisa, eremukako informazioa sistematizatu eta aztertuko dugu. Horrela, hizkuntza-gaitasunari buruzko datuak herrialdeka, eskualdeka eta udalerrika aurkeztuko ditugu, hainbat taula, grafiko eta maparen bidez. Hirugarren atalean jorratuko dugu lehen urrats hau.
- Bigarrenik, udalerri euskaldunen bilakaeran jarriko dugu zuzenean gure arreta. Horrela, UEMAk darabilen irizpidea aintzat hartuta, gaur egungo udalerri euskaldunak hartuko ditugu batetik, eta gainerako udalerri guztiak bestetik, eta bi udalerri multzo nagusi horiek azken 30 urteotan izan duten bilakaera deskribatuko dugu. Ikuspegi dikotomiko hori jorratuko dugu txosteneko laugarren atalean.
- Hirugarrenik, bosgarren atalean, datu zaharrenak ditugun urtea abiapuntu harturik, 1981. urtean udalerri bakoitzean zegoen euskaldunen dentsitatearen arabera multzokatze finkoa egingo dugu. Horrela, lehen multzoa 1981ean %90-%100 bitarteko euskaldunak zituzten udalerriek osatuko dute, %80-%90 bitartekoek bigarrena, %70-%80 bitartekoek hirugarrena, eta abar. Ikuspegi hau baliagarria izango zaigu duela 30 urteko ingurune soziolinguistiko batzuek eta besteek hiru ikergai garrantzitsutan (hizkuntza-gaitasuna, lehen hizkuntza eta etxeko hizkuntza) izan duten bilakaera zehatz aztertzeko.
- Laugarren urratsean azken 30 urteotan EAEn izandako habitat soziolinguistikoen bilakaera xehe eta zehatz aztertzea izango da helburua. Horretarako, zentsu-urte bakoitzean udalerri bakoitzak duen euskaldunen dentsitatea aintzat hartuta, hamar multzo sortuko ditugu zentsu-urte bakoitzerako. Horrela, 1981ko datuak hartu, eta urte horretan %90-%100 bitarteko euskaldunak zituzten udalerriek osatuko dute lehen multzoa, %80-%90 bitartekoek bigarrena, %70-%80 bi-

tartekoek hirugarrena, eta abar. Berdin egingo dugu 1991., 2001. eta 2011. urteetarako ere. Udalerrriak horrela sailkatuta, taldekatze alda-korra izango da urtetik urtera, eta horrela, urtetik urtera udalerrriak multzo batetik bestera nola aldatzen diren aztertu ahal izango dugu. Ondorioz, indartzen ari diren eta ahultzen ari diren habitatak zehaz-tuko ditugu. Ikuspegi metodologiko hau 6. atalean landuko dugu.

Lau hurbilpen horiek erabilia, errealitate berari lau angelutatik egingo dizkiogu ar-gazkiak, hartara irudi osatuago eta zuzenagoa eskuratzeko asmoz. Azken urrats gisa, sintesi-ikuspegia landuko dugu txosten honetako azken atalean.

Atala	Ikerketa-eremuak (multzoak)	Multzokatzeko irizpidea	Ikerketa-helburua
3	Eremu naturalak bere horretan (herrialdeak, eskualdeak, udalerrriak)	-	Lehen hurbilpena
4	Udalerrri euskaldunak eta gainerakoak (bi multzo finko)	2011n udalerrriak "euskaldun" diren edo ez (euskararen indizea >%70)	Udalerrri euskaldunen bilakaeraz datu orokor zehatzak eskuratzeko eta gainerakoekin alderatzea
5	Hamar multzo finko (udalerrri multzo egonkorak)	Jatorrizko (1981ko) euskaldun dentsitatearen arabera multzoak	Jatorrizko habitaten bilakaera soziolinguistikoa aztertzea (hizkuntza-gaitasuna, lehen hizkuntza, etxeko hizkuntza)
6	Hamar multzo aldakor (udalerrri ugari multzoz aldatu dira zentsu-urte batetik bestera)	Euskaldun-dentsitatea zentsu-urte bakoitzean.	Habitat soziolinguistikoko batzuen eta besteen pisuaren bilakaera aztertzea

11. Taula: bilakaera aztertzeko egingo ditugun urratsak

3.

HIZKUNTZA-GAITASUNAREN BILAKAERA EAEko HERRIALDE, ESKUALDE ETA UDALERRIETAN

3.1. Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera EAEn, herrialdez herrialde eta eskualdez eskualde


Ondorengo orrietako taula eta mapetan euskaldunek hiztun guztiekiko osatzen duten ehunekoez azken 30 urteotan izan duen bilakaerari buruzko datuak aurkezten dira EAEko herrialde eta eskualdeetarako. Datu horiek irakurrita, hainbat ondorio iruditzen zaizkigu azpimarratzeko modukoak:

- EAEko eremu osoa aintzat hartuta, euskaraz hitz egiteko gai direnen kopuruak nabarmen egin du gora 30 urtean: 1981eko %21,6tik 2011ko %37,2ra, hain zuzen.
- Aurreko joera positibo hori indartsuagoa izan zen 1991-2001 hamarkadan aurrekoan eta ondorengoan baino.
- Sailkapen orokorren hurrenkeran ez da aldaketa esanguratsurik gertatu, hots, euskaldunen ziren eskualdeak euskaldunen izaten jarraitzen dute eta euskaldun gutxien zituztenek gutxien izaten jarraitzen dute.
- Hala ere, oso bilakaera desberdinak antzematen dira eremuz eremu. Horrela, eta 1981-2011 epealdi osoa aintzat hartuta, honako eskualde hauek ageri dira bi muturretan: Lea-Artibai (euskaldunen kopurua ez da igo, eta 1981ko %81,9tik gaur egungo %81,1ra igaro da) eta Kantauri Arabarra, euskaldunen kopurua gehien hazi den eskualdea (non euskaldunak 1981. urtean %4,4 izatetik 2011n %28,8ra pasatu baitziren). Gainerako guztiak bi mutur horien tartean dabilta. Orokorrean, joera argia antzematen da: eskualde euskaldunenetan hazi dira gutxien euskaldunen ehunekoa eta erdaldunagoetan gehien. Laburtuz, bada, zenbat eta eremu erdaldunagoa, orduan eta gehiago igo da euskaldunen kopurua. Gehiago igo da, adibidez, Araban eta gutxiago Gipuzkoan; Gehiago Enkartzioetan eta gutxiago Urola Kostan.
- Joera orokor hori (eremu erdaldunagoetan gehiago aurreratzea eta euskaldunagoetan gutxiago) ez da era homogeneousan gertatu aztertutako epealdi osoan. 1981-1991 hamarkadan gauzak bestela gertatu ziren, eta hamarkada horretan hazkunde handiagoa izan zuten euskaldun dentsitate ertaina zuten eskualde batzuek (Goierri, Debagoienak eta Debabarrenak) eskualde erdaldunagoek baino. 1991-2001 hamarkadan, ordea, jada gehiago handitu ziren orokorrean euskaldunen kopuruak eremu erdaldunagoetan gainerakoetan baino. 2001-2011 hamarkadan joera hori areagotu egin zen, eta eskualde euskaldunenetan galerak nagusitu ziren; eremu erdaldunenek, aldiz, euskalduntzen jarraitu zuten.


Azken 10 urteotako bilakaerari erreparatuta, datuek korrelazio argia erakusten dute (ikus Q grafikoa): zenbat eta eremu euskaldunagoa, orduan eta atzerakada handiagoa euskaldunen proportzioan; zenbat eta erdaldunagoa, orduan eta aurrerakada handiagoa.

	1981	1991	2001	2011	1981-1991	1991-2001	2001-2011	1981-2011
EAE	21,6	26,3	32,3	37,2	4,7	6,0	4,9	15,7
Herrialdeak								
Gipuzkoa	39,5	45,9	51,5	53,3	6,4	5,5	1,8	13,7
Bizkaia	14,9	18,9	25,0	31,2	4,1	6,0	6,2	16,3
Araba	3,9	8,6	16,2	23,9	4,7	7,6	7,7	20,0
Eskualdeak								
Lea Artibai	81,9	84,9	87,0	81,1	3,0	2,1	-5,9	-0,8
Gernika-Bermeo	71,7	75,7	75,1	72,1	4,1	-0,6	-2,9	0,5
Urola-Kostaldea	73,8	78,4	79,5	76,1	4,7	1,0	-3,4	2,3
Plentzia-Mungia	46,9	49,3	47,1	49,5	2,4	-2,1	2,3	2,6
Arrati Nerbioi	48,0	53,1	56,2	54,8	5,1	3,1	-1,4	6,8
Tolosaldea	63,1	68,3	71,8	71,0	5,1	3,6	-0,8	7,9
Debagoiena	53,5	60,6	65,6	63,3	7,1	5,0	-2,3	9,8
Debarrena	47,6	55,2	60,2	58,6	7,6	5,0	-1,5	11,1
Durangaldea	36,6	41,0	47,2	49,1	4,4	6,2	1,9	12,4
Goierrri	46,8	55,5	61,8	60,1	8,8	6,2	-1,7	13,3
Gorbeia Inguruak	28,0	32,9	37,4	42,2	5,0	4,4	4,8	14,2
Bidasoa Beherea	25,5	31,1	38,3	41,1	5,6	7,2	2,8	15,6
Arabako Ibarrek	0,9	2,3	7,1	17,1	1,4	4,7	10,0	16,1
Bilbo Handia	6,5	10,4	16,7	24,1	3,9	6,3	7,3	17,6
Donostialdea	26,1	32,3	39,2	44,1	6,3	6,8	5,0	18,0
Arabako Lautada	3,4	7,6	15,1	22,9	4,2	7,6	7,8	19,5
Arabako Mendialdea	0,6	5,4	11,8	21,1	4,9	6,4	9,3	20,5
Errioxa Arabarra	0,9	7,2	13,1	21,6	6,3	5,9	8,5	20,7
Enkartzioak	1,0	4,2	13,0	22,8	3,2	8,8	9,8	21,8
Kantauri Arabarra	4,4	12,7	22,1	28,8	8,3	9,4	6,7	24,4

12. Taula. Euskaldunek hitzun guztiekiko osatzen duten ehunekoaren bilakaera EAEn, herrialdeka eta eskualdeka, 1981-2011





O. Grafikoa: hizkuntza-gaitasuna, herrialdeka. EAE, 1981-2011




P. Grafikoa: hizkuntza-gaitasuna, eskualdeka. EAE, 1981-2011

Q. Grafikoa: hizkuntza-gaitasunean 2001-2011 aldian izandako bilakaera, 2011. Urteko hizkuntza-gaitasunaren arabera. EAEko eskualdeak






II. Mapa: hizkuntza-gaitasuna.
EAEko eskualdeak, 1981
(euskaldunen %a)





III. Mapa: hizkuntza-gaitasuna.
EAEko eskualdeak, 1991
(euskaldunen %a)

IV. Mapa: hizkuntza-gaitasuna.
EAEko eskualdeak, 2001
(euskaldunen %a)




V. Mapa: hizkuntza-gaitasuna.
EAEko eskualdeak, 2011
(euskaldunen %a)






VI. Mapa: hizkuntza-gaitasunaren bilakaera. EAEko eskualdeak, 1981-1991 (euskaldunen %an izandako hazkundera)




VII. Mapa: hizkuntza-gaitasunaren bilakaera. EAEko eskualdeak, 1991-2001 (euskaldunen %an izandako hazkundera)

VIII. Mapa: hizkuntza-gaitasunaren bilakaera. EAEko eskualdeak, 2001-2011 (euskaldunen %an izandako hazkundea)




IX. Mapa: hizkuntza-gaitasunaren bilakaera. EAEko eskualdeak, 1981-2011 (euskaldunen %an izandako hazkundea)




3.2. Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera, udalerriak

Eranskineko E3 taula handian, hizkuntza-gaitasunak udalerriz udalerriz izan duen bilakaerari buruzko datuak aurkezten dira, eta, datu horietan oinarrituta, ondorengo orrialdeetako mapak sortu ditugu. Datuei eta mapei begiratuta, eskualdekako azterketan ikusi dugun bezala, hizkuntza-gaitasunaren bilakaera ez dela homogenea izan ikus dezakegu. Are gehiago, eskualdeetan baino are alde sakonagoak ikusten ditugu udalerriz batzuetatik besteetara. Muturreko adibide batzuk aipatzeko:

- Euskaldunek hiztun guztiekiko osatzen duten ehunekoan gehien handitu diren udalerrien artean ditugu, besteak beste, Zalduondo (euskaldunak %1,6 izatetik %36,9 izatera igaro dira 30 urtetan), Amurrio (%2,5etik %28,9ra), Agurain (%3,6tik %29,4ra), Kanpezu (%0,8tik %24,6ra) eta Zalla (%0,8tik %24,5era).
- Euskaldunen ehunekoa gehien jaitsi duten udalerrien artean ditugu, berriz, honakoak: Maruri-Jatabe (euskaldunak %85,8 izatetik %62,2ra jaitsi dira 30 urtetan), Gamiz-Fika (%94,9tik %73,1era), Lizartza (%94,9tik %73,1era), Bakio (%94,9tik %73,1era), Zalla (%94,9tik %73,1era), Kanpezu (%94,9tik %73,1era), Agurain (%94,9tik %73,1era), Amurrio (%94,9tik %73,1era) eta Zalduondo (%94,9tik %73,1era).




R. Grafikoa:
hizkuntza-gaitasunaren bilakaera
EAEko udalerrietan, 1981-2011.
Muturreko hainbat adibide





S. Grafikoa:
hizkuntza-gaitasunean 1981-2011
aldian izandako bilakaera, 1981.
Urteko hizkuntza-gaitasunaren
arabera. EAEko udalerrak

X. Mapa: hizkuntza-gaitasuna.
EAEko udalerrriak, 1981
(euskaldunen %a)




XI. Mapa: hizkuntza-gaitasuna.
EAEko udalerrriak, 1991
(euskaldunen %a)






XII. Mapa: hizkuntza-gaitasuna.
EAEko udalerriak, 2001
(euskaldunen %a)




XIII. Mapa: hizkuntza-gaitasuna.
EAEko udalerriak, 2011
(euskaldunen %a)


XIV. Mapa:
hizkuntza-gaitasunaren bilakaera.
EAEko udalerrriak, 1981-1991
(euskaldunen %an izandako
hazkundera)




XV. Mapa:
hizkuntza-gaitasunaren bilakaera.
EAEko udalerrriak, 1991-2001
(euskaldunen %an izandako
hazkundera)



XVI. Mapa:
hizkuntza-gaitasunaren bilakaera.
EAEko udalerrriak, 2001-2011
(euskaldunen %an izandako
hazkundera)





XVII. Mapa:
hizkuntza-gaitasunaren bilakaera.
EAEko udalerriak, 1981-2011
(euskaldunen %an izandako
hazkundera)

3.3. Atalaren ondorioak labur

EAE osoan euskaldunen kopurua handitu egin da 1981. urtetik 2011. urtera: zehazki, %21,6 izatetik %37,2 izatera heldu da. Hazkunde hori, ordea, ez da oso homogeneoa izan lurralde osoan eta alde handiak daude eremu batzuetatik besteetara. Eremuko datuak ikusita, intuitiboki edo, argi nabari da gehien euskaldundu direnak eskualde eta udalerri erdaldunagoak izan direla eta, aitzitik, zonalde euskaldunagoak gutxiago aurreratu dutela edo atzera egin dutela euskarazko hizkuntza-gaitasunean.

4.

EAEko UDALERRI EUSKALDUNEN (ETA GAINERAKOEN) BILAKAERA, 1981-2011

4.1. Azterketarako bi multzo: udalerri euskaldunak eta gainerakoak


Atal honetan, esan bezala, udalerriak multzokatzeko irizpide gisa gaur egungo egoera hartuko dugu eta EAEko udalerriak bi multzo nagusitan sailkatuko ditugu: udalerri euskaldunak batetik (2011ko zentsuko datuen arabera euskararen indizean %70eko balioa gainditu zuten udalerriak) eta gainerako udalerri guztiak bestetik. Zein bilakaera izan dute azken 30 urteotan egun “euskaldun” diren udalerri horiek? Bilakaera hori bat al dator gainerako udalerrietan antzematen diren joerekin?

4.2. Biztanle kopurua eta euskaldun kopurua udalerri euskaldunetan (eta gainerakoetan), 1981-2011 bilakaera

Egun euskalduntzat jo ditugun 126 udalerri horietan biztanle kopurua ez da asko aldatu azken 30 urteotan: 310.089tik 335.729ra igo da biztanleria udalerri multzo horretan (ikus eranskineko E4 taula). Guztira, EAEko biztanleriaren %14,5 izatetik %15,4 izatera pasatu da udalerri multzo hori. Gainerako udalerrien biztanleria metatua ere nahi-ko egonkor azaltzen zaigu azken 30 urteotan: 1981ko 1.831.720tik 2011ko 1.844.086ra ez dago ia aldaketarik kopuruetan, eta ehunekoetan, berriz, %85,5etik %84,6ra igaro da udalerri horien pisua.


Udalerri euskaldunen pisu demografikoa, hortaz, egonkor azaltzen zaigu azken 3 hamarkadetan, %15^aren inguruan, nahiz eta azken 15 urteotan batez bestekoa baina pixka bat gehiago handitu den udalerri horien pisua.

T. Grafikoa: biztanleria udalerri euskaldunetan eta gainerakoetan. EAE, 1981-2011



126 udalerri euskaldun horietan bizi diren euskaldunak 209.975 ziren 1981. urtean eta 235.019 2011n. Hazkunde ez oso handi hori 80ko hamarkadan gertatu zen batik bat, eta 1991tik gaur arteko hazkundea apalagoa izan da. Bitartean, epe horretan bertan, EAEko gainerako udalerrietan (“euskaldun” izendatu ez ditugun horietan) gora egin du oso nabarmen euskaldunen kopuruak: 237.801koa zen 1981ean eta 554.420koa 2011n; beraz, bikoiztu baino gehiago egin da udalerri horietako euskaldun kopurua 30 urtetan.


Ondorioz, udalerri euskaldunetan bizi diren euskaldunek geroz eta zati txikia goa osatzen dute EAEko euskaldun guztiekiko: euskaldun guztien ia erdiak udalerri euskaldunetan bizi ziren 1981 urtean (%46,9) eta gaur egun ez dira herenera iristen (%29,8).



U. Grafikoa: euskaldunak udalerri euskaldunetan eta gainerakoetan. EAE, 1981-2011

4.3. Hizkuntza-gaitasuna udalerri euskaldunetan (eta gainerakoetan), 1981-2011 bilakaera


Udalerri euskaldunetan gora egin zuen euskaldunen eta ia-euskaldunen kopuruak 1981-2001 bitartean (euskaldunen pisua, zehazki, %69,8tik %75,5 izatera igo zen). 2001etik aurrera, berriz, atzera egin du bi kategorია horien pisuak (euskaldunak %72,3 izatera pasatu dira) eta gora egin du erdaldun elebazarren ehunekoak.



V. Grafikoa: hizkuntza gaitasuna. EAEko udalerri euskaldunak, 1981-2011

Oso bestelakoa izan da gainerako udalerrietako joera: euskaldunen ehunekoa asko handitu da, 1981ko %13,4tik 2011ko %30,9ra hain zuzen. Laburtuz, bada, EAEko gainerako udalerrietan ez bezala, euskaldunen kopurua ez da asko handitu udalerri euskaldunetan azken 30 urteotan, eta azken hamarkadan, gainera, atzera egin du euskaldunen pisuak udalerri euskaldunetan.

W. Grafikoa: euskaldunek hitzun guztiekiko osatzen duten ehunekoak udalerri euskaldunetan eta gainerakoetan. EAE, 1981-2011




13. Taula. Euskaldunek osatzen duten ehunekoak udalerri euskaldunetan eta gainerakoetan. EAE, 1981-2001

	Ehunekoak (%)				Bilakaerak (%)			
	1981	1991	2001	2011	1981-1991	1991-2001	2001-2011	1981-2011
UDALERRI GUZTIAK	21,6	26,3	32,3	37,2	4,7	6,0	4,9	15,7
Udalerri euskaldunak 2011n (indizea > 70)	69,8	74,0	75,5	72,3	4,2	1,5	-3,2	2,5
Gainerako udalerriak	13,4	18,1	24,8	30,9	4,7	6,7	6,1	17,5

4.4. Lehen hizkuntza udalerri euskaldunetan (eta gainerakoetan), 1986-2011 bilakaera


Lehen hizkuntzari erreparatuta (ikus eranskineko E3 taula eta ondorengo grafikoak), udalerri euskaldunetan atzera egin du euskara lehen hizkuntza zutenen kopuruak azken mende laurden honetan: zehazki, 1986ko %68,7tik 2011ko %58,4ra. Epe berean, igo egin da lehen hizkuntza erdara (gaztelania edo beste bat) izan dutenen pisua: %25,9tik %31,4ra gaztelaniaren kasuan, eta %1,0etik %3,3ra gainerako hizkuntzen kasuan. Bilakaera hori ez da modu berean gertatu ikertutako aldi guztian: 1986-1991 bosturtekoan egoera egonkor mantendu ondoren, aldaketak goeko hamarkadan hasi ziren eta asko bizkortu dira 2001-2011 tartean. Aldaketa joera orokor horren jatorrian, ordezkapen demografikoak zeresan handia izango du, belaunaldi zaharrenen hil-

X. Grafikoa: lehen hizkuntza. EAEko udalerri euskaldunak, 1986-2011



kortasunak zehazki (belaunaldi horietan oraindik batez bestekoaren gainetik dago euskara lehen hizkuntza dutenen kopurua). Gaia adinka ustiatuta ikus liteke lehen hizkuntzaren bilakaeran udalerri euskaldunetan euskarak izan duen beherako joera zenbateraino zor zaion ordezkaren demografiko natural horri eta zenbateraino eragin duten bestelako faktoreek. Dena den, txosten honen helburua gertatutako bilakaerak egoki eta zehatz deskribatzea da, ez gertatutakoaren logika azaleratzea. Txostenaren helburuetatik kanpo gelditzen da, hortaz, horretan sakontzea.

Gainerako udalerrietan ere apur bat jaitsi da euskara lehen hizkuntza duten herritarren kopurua: 1986ko %12,4tik 2011ko %11,6ra. Kasu horretan ere 1991tik aurrera hasi zen beherakada hori. Dena den, jaitsiera askoz ere handiagoa izan da udalerri euskaldunetan gainerakoetan baino.



Y. Grafikoa: lehen hizkuntza euskara dutenek hiztun guztiekiko osatzen duten ehunekoa udalerri euskaldunetan eta gainerakoetan. EAE, 1986-2011


	Ehunekoa (%)				Bilakaera (%)			
	1986	1991	2001	2011	1986-1991	1991-2001	2001-2011	1986-2011
UDALERRI GUZTIAK	20,6	20,6	19,9	18,8	0,0	-0,7	-1,1	-1,8
Udalerri euskaldunak 2011n (indizea > %70)	68,7	68,6	65,6	58,4	-0,2	-2,9	-7,2	-10,3
Gainerako udalerriak	12,4	12,4	11,9	11,6	-0,1	-0,5	-0,3	-0,8

14. Taula. Lehen hizkuntza euskara izan dutenek osatzen duten ehunekoa udalerri euskaldunetan eta gainerakoetan. EAE, 1981-2001

4.5. Etxeko hizkuntza udalerri euskaldunetan (eta gainerakoetan), 1991-2011 bilakaera


Euskararen erabilera jaitsi egin da udalerri euskaldunetako etxeetan azken 20 urteotan. 1991 urtean hiztunen %56,4k euskara erabiltzen zuten nagusiki etxean. Kopuru hori %47,5era jaitsi zen 2011. urtean. Jaitsiera azken 10 urteetan gertatu da gehienbat, eta azken hamarkada horretan jaitsi egin dira, halaber, euskara eta gaztelania bi hizkuntzak erabiltzen dituztenen ehunekoa. Aitzitik, indartsu igo dira gaztelania eta beste erdarak erabiltzen dituztenen ehunekoa: 1991n %27,9 ziren gaztelania nagusiki erabiltzen zutenak eta %0,4 beste erdararen bat zerabiltzenak; 2011n, berriz, %37,3koa zen gaztelaniaren ehunekoa eta %1,9koa gainerako hizkuntzena.

Z. Grafikoa: etxeko hizkuntza. EAEko udalerri euskaldunak, 1991-2011



Udalerri euskaldunetako etxeetan ez bezala, euskararen erabilerak gora egin du apur bat gainerako udalerrietan, 1991ko %6,6tik egungo %7,5era. Aurkako joerak aurkitzen ditugu, hortaz, ikertutako bi multzoetan: euskararen erabilera nabarmen atzeratzen ari da udalerri euskaldunetako etxeetan eta, oso poliki bada ere, aurrera egin du pixka bat gainerako udalerrietako etxeetan.

AA. Grafikoa: etxeko hizkuntza nagusiki euskara dutenek osatzen duten ehunekoa udalerri euskaldunetan eta gainerakoetan. EAE, 1991-2011



15. Taula. Etxeko hizkuntza nagusiki euskara dutenek osatzen duten ehunekoa udalerri euskaldunetan eta gainerakoetan. EAE 1981-2011

	Ehunekoa (%)			Bilakaerak (%)		
	1991	2001	2011	1991-2001	2001-2011	1991-2011
UDALERRI GUZTIAK	13,9	13,7	13,6	-0,2	-0,1	-0,3
Udalerri euskaldunak 2011n (indizea > %70)	56,4	54,5	47,5	-2,0	-7,0	-9,0
Gainerako udalerriak	6,6	6,6	7,5	0,0	0,9	0,9

4.6. Atalaren ondorioak labur

Udalerri euskaldunen pisu demografikoa nahiko egonkor azaltzen zaigu aztertutako epealdian, nahiz eta azken 10 urteotan igo egin den apur bat.

Datu soziolinguistikoen bilakaerak irudi nahiko koherentea osatzen du: euskarak atzera egin du udalerri euskaldunetan 1991. urtetik eta, batez ere, 2001. urtetik aurrera. Euskaldunen pisua jaitsi egin da azken 10 urteotan, eta indartsu jaitsi dira, halaber, euskara lehen hizkuntza zuten herritarren kopurua eta etxeetan euskara erabiltzen dutenena. Joera hori ez dator bat, oro har, gainerako udalerrietan ageri denarekin. Horietan indartsu egin du gora euskaldunen kopuruak eta ez da bilakera nabarmenik ikusten lehen hizkuntzaren eta etxeko erabilerari dagokionez.

5.

UDALERRI MULTZOEN BILAKAERA, JATORRIZKO EUSKALDUN-DENTSITATEAREN ARABERA

5.1. Udalerrri multzoak, duela 30 urteko euskaldunen dentsitatearen arabera, hizkuntzen egoera sozialean gertatu diren aldaketa-joerak atzeman nahian

Aurreko atalean, EAeko udalerrriak bi multzo nagusitan banatuta aztertu ditugu. Talde horiek oso zabalak direla jakinda, oraingoan askoz ere xeheago egingo ditugu taldeak. Atal honetan, honako hamar talde hauetan multzokatuko ditugu EAeko udalerrriak, 1981. urtean euskaldunek hiztun guztiekiko osatzen zuten ehunekoa-
ren arabera:

- 1981. urtean euskaldunak hiztunen %90 eta %100 bitartean ziren udalerrriak.
- 1981ean euskaldunak %80-90 zirenak.
- 1981ean euskaldunak %70-80 zirenak.
- 1981ean euskaldunak %60-70 zirenak.
- 1981ean euskaldunak %50-60 zirenak.
- 1981ean euskaldunak %40-50 zirenak.
- 1981ean euskaldunak %30-40 zirenak.
- 1981ean euskaldunak %20-30 zirenak.
- 1981ean euskaldunak %10-20 zirenak.
- 1981ean euskaldunak %0-10 zirenak.

Jatorrizko (1981eko) euskaldun-dentsitatearen arabera hamar multzo horiek finko mantenduta, udalerrri multzo horietan azken 20-30 urteotan izan den bilakaera aztertuko dugu, honako hiru aldagai hauei dagokienez: hizkuntza-gaitasuna, lehen hizkuntza eta etxeko hizkuntza.

Oharra: bilakaera-datuak aztertzeke, eta seriearen homogeneousitasuna ziurtatzeko, Ziortza-Bolibarko eta Markina-Xemeingo bilakaera-datuak elkarrekin aztertuko ditugu (horregatik, tauletan, 250 udalerrri azalduko zaizkigu guztira, berez gaur egun Ziortza-Bolibarrekin 251 diren arren).


5.2. Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera jatorrizko dentsitate multzoetan, 1981-2011

Euskaldunek hiztun guztien artean osatzen duten ehunekoak gora egin du nabarmen EAEn azken 30 urteotan, 1981ko %21,6tik %37,2raino. Bilakaera hori, ordea, ez da batere homogeneousoa izan udalerrrien abiapuntu soziolinguistikoa aintzat hartuta. Horrela, 1981ean euskaldunek udalerrietan zuten pisua kontuan hartuta, honako joera hauek antzematen dira:

- 1981. urtean euskaldun-dentsitate handiena zuten udalerrrien multzoan (euskaldunak %90-%100) egonkor agertzen zaigu euskaldunen ehunekoa 1981-1991 aldian; 1991-2001ean jaitsi egiten da euskaldunen ehunekoa eta jaitsiera are gehiago sakontzen da 2001-2011n. Aldi osoa aintzat hartuta, multzo honetan euskaldunak %94,5 ziren 1981ean eta %83,9 2011n.

- Hurrengo bi multzoek (%80-%90, %70-%80) galera txikiak izan dituzte aztertutako 30 urteetako epealdian, eta datuetan sakonduz ikusiko dugu joera aldakorra izan dutela aztertutako hiru hamarkadetan: 1981-1991n euskaldunen kopuruak igotzen ikusi zituzten udalerri horiek; 1991-2001ean egonkor iraun zuten eta azken hamarkadan jaitsi egin dira euskaldunen kopuruak. Aldi osoa aintzat hartuta, euskaldunen ehunekoak apur bat jaitsi egin da abiapuntua %80-%90ean zuten udalerrietan (%83,2tik %81,1ra) eta maila berean azaltzen zaigu %70-%80koen multzoan, %74^aren inguruan. Edonola ere, kontuan hartzeko datua da azken hamarkadan bi multzo horiek beherako joera argia hartu dutela.
- Hurrengo bi multzoek (%60-%70 eta %50-%60) euskaldunen ehunekoan gora egin dute epealdi osoa kontuan hartuta, baina azken hamarkadan beherako joera apala hartu dute horiek ere.
- Hurrengo bi multzoetan (%40-%50 eta %30-%40) euskaldunen kopuruak gora egin du nabarmen aztertutako 30 urteotan, nahiz eta azken hamarkadan hazkunde prozesu hori nahikoa geldituta azaltzen zaigun.
- Azkenik, 1981. urtean euskaldun gutxiago zituzten hiru multzoek (euskaldunak %0-%10, %10-%20 eta %20-%30) goranzko joera indartsua eta jarraitua, oraingoz etenik gabea, ageri dute. Horrela, 1981ean abiapuntu apalena zuten udalerriak hartzen baditugu (%0-%10 multzokoak) euskaldunen portzentajea %4,4tik %22,7ra igo dela ikusiko dugu. %10-%20 multzoko udalerrietan euskaldunak %15,7tik %33,1era igo dira eta %20-%30 multzokoetan %22,2tik %40,1era. Aipatzeko moduko datua da azken hiru multzo horietako udalerriek biltzen dutela EAEko biztanleriaren zati nagusia. Horietan bizi dira, 2011. urtean, 1.574.711 lagun, EAEko biztanle guztien %72,2. Horiek horrela, hiru multzo horien joerak pisu handia du EAE osoko datuetan. Ondorioz, nahiz eta gainerako multzoetan (multzo euskaldunagoetan) joera bestelakoa izan, EAEko joera orokorra azken hiru multzo horiek finkatzen dutenetik hurbil azalduko zaigu.

BB. Grafikoa. Hizkuntza gaitasunaren bilakaera, udalerriak 1981eko dentsitate mailaren arabera multzokatuta. EAE, 1981-2011




Orokorrean, zenbat eta abiapuntu erdaldunagoa, orduan eta gehiago handitu da udalerri horietako euskaldunen kopurua. Udalerrri euskaldunenek (1981eko abiapuntuan euskaldunak %70etik gora zituztenek), ordea, atzera egin dute, euskaldunetan euskaldunenak bereziki. Atzerakada hori 2001-2011 hamarkadan gertatu da nagusiki, nahiz eta lehenagotik ere bazetorren. Azken hamarkada horretan, abiapuntuan euskaldunak %30etik behera zituzten hiru multzoetan bakarrik egin du gora euskaldunen ehunekoak, eta gainerako multzoetan geldialdia edo atzerakada gertatu da.

	Biztanleak (2011)	Ehunekoak (%)				Bilakaerak (%)			
		1981	1991	2001	2011	1981-1991	1991-2001	2001-2011	1981-2011
UDALERRI GUZTIAK	2.119.586	21,6	26,3	32,3	37,2	4,7	6,0	4,9	15,7
Euskaldunak %90-100 (1981ean)	34.724	94,5	94,2	90,6	83,9	-0,3	-3,6	-6,6	-10,6
Euskaldunak %80-90 (1981ean)	49.048	83,2	86,8	86,9	81,1	3,6	0,0	-5,8	-2,1
Euskaldunak %70-80 (1981ean)	79.662	73,8	78,1	77,9	73,7	4,2	-0,2	-4,3	-0,2
Euskaldunak %60-70 (1981ean)	68.156	63,8	69,2	70,9	67,9	5,4	1,8	-3,0	4,1
Euskaldunak %50-60 (1981ean)	125.875	54,8	60,4	63,2	62,0	5,6	2,8	-1,2	7,2
Euskaldunak %40-50 (1981ean)	69.976	43,8	50,1	55,4	55,8	6,4	5,3	0,4	12,0
Euskaldunak %30-40 (1981ean)	158.710	37,2	45,6	51,9	52,3	8,5	6,2	0,5	15,2
Euskaldunak %20-30 (1981ean)	273.210	22,2	28,0	35,0	40,1	5,8	7,0	5,0	17,9
Euskaldunak %10-20 (1981ean)	187.329	15,7	20,3	27,6	33,1	4,6	7,4	5,4	17,4
Euskaldunak %0-10 (1981ean)	1.072.896	4,4	8,4	15,0	22,7	4,0	6,6	7,8	18,4

16. Taula. Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera, udalerriak 1981eko dentsitate mailaren arabera multzokatuta. EAE, 1981-2011 (laburpena)

5.3. Lehen hizkuntzaren bilakaera jatorrizko dentsitate multzoetan, 1986-2011

Lehen hizkuntza euskara duten herritarren kopuruak behera egin du EAEn azken 25 urteotan, 1986ko %20,6tik 2011ko %18,8ra hain zuzen. Jaitsiera hori 1991-2001 eta, batez ere, 2001-2011n gertatu da. Datuak 1981eko dentsitate multzoen arabera aztertuta, zera ikusiko dugu: lehen hizkuntza euskara dutenen ehunekoak behera egin duela udalerri multzo guzti-guztietan, multzorik erdaldunenean izan ezik (1981ean euskaldunak %0-%10 ziren udalerrietan). Gainerako multzo guztietan jaitsi egin da lehen hizkuntza euskara duten herritarren proportzioa, eta beherakada handiagoa



CC. Grafikoa. Lehen hizkuntzaren bilakaera, udalerriak 1981eko dentsitate mailaren arabera multzokatuta. EAE, 1986-2011

da udalerri euskaldunagoetan. Horrela, goiko muturrera joz, ikusgarria da %90-%100 euskaldunak zituzten udalerrietan ikusten den bilakaera: lehen hizkuntza euskara zutenak %94,0 ziren 1981ean eta 2011n, berriz, %73,0 .

Bien bitartean, gora egin du gaztelania lehen hizkuntzatzat duten herritarren eta lehen hizkuntza euskara eta gaztelania izan dituztenen ehunekoak ia dentsitate multzo guztietan. Oro har, zenbat eta multzo euskaldunagoa, orduan eta gehiago handitu dira lehen hizkuntza gaztelania (edo biak) izan dituztenen ehunekoak.

Lehen hizkuntza euskara eta gaztelania ez beste hizkuntzaren bat izan dutenen ehunekoak, azkenik, gora egin du, 2001-2011 hamarkadan batik bat, nahiko era homogeneoan udalerri multzo guztietan.


17. Taula. Lehen hizkuntzaren bilakaera, udalerriak 1981ko dentsitate-mailaren arabera multzokatuta. EAE, 1986-2011 (laburpena)

	Biztanleak (2011)	Ehunekoak (%)				Bilakaerak (%)			
		1986	1991	2001	2011	1986-1991	1991-2001	2001-2011	1986-2011
Euskara									
UDALERRI GUZTIAK	2.119.586	20,6	20,6	19,9	18,8	0,0	-0,7	-1,1	-1,8
Euskaldunak %90-100 (1981ean)	34.724	94,0	93,2	87,0	73,0	-0,9	-6,2	-13,9	-21,0
Euskaldunak %80-90 (1981ean)	49.048	83,2	82,8	80,2	71,0	-0,4	-2,6	-9,2	-12,2
Euskaldunak %70-80 (1981ean)	79.662	71,9	72,1	68,6	60,8	0,1	-3,5	-7,8	-11,1
Euskaldunak %60-70 (1981ean)	68.156	62,1	62,9	58,6	52,2	0,8	-4,3	-6,5	-10,0
Euskaldunak %50-60 (1981ean)	125.875	54,3	53,9	50,9	45,2	-0,4	-3,1	-5,7	-9,2
Euskaldunak %40-50 (1981ean)	69.976	43,4	44,4	42,2	37,3	1,0	-2,1	-4,9	-6,1
Euskaldunak %30-40 (1981ean)	158.710	37,1	38,7	36,1	33,1	1,6	-2,6	-3,0	-4,0
Euskaldunak %20-30 (1981ean)	273.210	21,3	20,6	19,6	18,9	-0,7	-1,0	-0,7	-2,4
Euskaldunak %10-20 (1981ean)	187.329	14,7	14,1	13,2	12,4	-0,6	-0,9	-0,7	-2,2
Euskaldunak %0-10 (1981ean)	1.072.896	3,2	3,2	3,4	4,0	0,0	0,2	0,6	0,8
Euskara eta gaztelania									
UDALERRI GUZTIAK	2.119.586	3,9	3,5	4,0	5,2	-0,4	0,5	1,2	1,3
Euskaldunak %90-100 (1981ean)	34.724	1,1	1,6	2,3	5,2	0,6	0,7	2,9	4,1
Euskaldunak %80-90 (1981ean)	49.048	2,5	2,6	3,4	5,1	0,1	0,8	1,8	2,6
Euskaldunak %70-80 (1981ean)	79.662	3,4	3,8	4,9	6,5	0,3	1,2	1,6	3,1
Euskaldunak %60-70 (1981ean)	68.156	4,8	4,0	6,4	7,8	-0,9	2,4	1,4	3,0
Euskaldunak %60-70 (1981ean)	125.875	6,7	6,5	6,7	8,0	-0,3	0,2	1,3	1,2
Euskaldunak %40-50 (1981ean)	69.976	5,1	4,6	5,4	7,1	-0,5	0,8	1,7	2,0
Euskaldunak %30-40 (1981ean)	158.710	7,1	5,1	6,8	8,0	-1,9	1,6	1,2	0,9
Euskaldunak %20-30 (1981ean)	273.210	7,2	6,8	7,0	7,9	-0,3	0,2	0,8	0,7
Euskaldunak %10-20 (1981ean)	187.329	4,5	4,5	4,1	5,5	0,0	-0,4	1,4	1,0
Euskaldunak %0-10 (1981ean)	1.072.896	2,2	1,9	2,2	3,3	-0,3	0,3	1,1	1,1
Gaztelania									
UDALERRI GUZTIAK	2.119.586	73,8	74,4	74,4	72,3	0,7	-0,1	-2,1	-1,5
Euskaldunak %90-100 (1981ean)	34.724	4,7	5,0	10,0	19,0	0,3	5,0	9,0	14,3
Euskaldunak %80-90 (1981ean)	49.048	13,2	13,8	15,3	20,2	0,5	1,5	4,9	6,9
Euskaldunak %70-80 (1981ean)	79.662	23,1	22,9	24,9	29,2	-0,2	2,0	4,4	6,1
Euskaldunak %60-70 (1981ean)	68.156	32,2	32,4	33,8	37,0	0,2	1,4	3,1	4,8
Euskaldunak %60-70 (1981ean)	125.875	37,7	38,6	41,0	43,3	0,9	2,3	2,3	5,6
Euskaldunak %40-50 (1981ean)	69.976	50,0	49,9	50,9	51,8	-0,1	1,1	0,8	1,8
Euskaldunak %30-40 (1981ean)	158.710	54,4	55,1	55,6	55,6	0,7	0,6	0,0	1,3
Euskaldunak %20-30 (1981ean)	273.210	69,2	70,7	71,4	69,6	1,5	0,7	-1,8	0,4
Euskaldunak %10-20 (1981ean)	187.329	78,6	79,2	80,6	78,4	0,6	1,4	-2,2	-0,2
Euskaldunak %0-10 (1981ean)	1.072.896	92,8	93,3	92,5	88,6	0,5	-0,8	-3,9	-4,2
Beste hizkuntza bat									
UDALERRI GUZTIAK	2.119.586	1,7	1,5	1,8	3,8	-0,2	0,3	2,0	2,1
Euskaldunak %90-100 (1981ean)	34.724	0,2	0,3	0,7	2,7	0,0	0,4	2,0	2,5
Euskaldunak %80-90 (1981ean)	49.048	1,0	0,8	1,2	3,7	-0,2	0,4	2,5	2,6
Euskaldunak %70-80 (1981ean)	79.662	1,5	1,3	1,6	3,5	-0,2	0,3	1,8	1,9
Euskaldunak %60-70 (1981ean)	68.156	0,9	0,7	1,1	3,1	-0,1	0,4	2,0	2,2
Euskaldunak %60-70 (1981ean)	125.875	1,2	0,9	1,4	3,5	-0,3	0,5	2,1	2,3
Euskaldunak %40-50 (1981ean)	69.976	1,5	1,1	1,4	3,8	-0,4	0,3	2,4	2,3
Euskaldunak %30-40 (1981ean)	158.710	1,5	1,1	1,5	3,3	-0,3	0,4	1,8	1,8
Euskaldunak %20-30 (1981ean)	273.210	2,4	1,9	1,9	3,6	-0,4	0,0	1,7	1,3
Euskaldunak %10-20 (1981ean)	187.329	2,2	2,2	2,1	3,7	0,0	-0,1	1,6	1,5
Euskaldunak %0-10 (1981ean)	1.072.896	1,8	1,5	1,9	4,0	-0,2	0,4	2,2	2,3

5.4. Etxeko hizkuntzaren bilakaera jatorrizko dentsitate multzoetan, 1991-2011

EAE osoa aintzat hartuta, ez da aldaketa handirik izan azken 20 urteotan herritarrek etxean erabili ohi dituzten hizkuntzen banaketan. Etxean nagusiki euskaraz dihardutenak, 1991. urtean %13,9 izatetik 2011. urtean %13,6 izatera igaro dira. Datuak jatorrizko dentsitatearen arabera udalerri multzoka aztertuta, ordea, joera aipagarriak ikusten dira. Horrela, euskararen erabilerak gora egin du eta gaztelaniarenak behera hiru multzo erdaldunenetan, abiapuntuko ezagutza maila %30etik behera zuten udalerrietan. Aitzitik, gainerako multzo guztietan behera egin du euskararen erabilerak eta gora gaztelaniarenak. Zenbat eta jatorriz euskaldunagoa multzoa, orduan eta gehiago egin du atzera euskararen erabilerak eta aurrera gaztelaniarenak. Muturreko talde euskaldunenaren datua aipatuz, euskaldunak 1981. urtean %90-100 ziren udalerrietako etxeetan euskara nagusiki erabili ohi dutela erantzun dutenen kopurua %88,5etik %65,4ra jaitsi da, eta nagusiki gaztelania darabiltela diotenenen kopurua laukoiztu egin da hogeitaz buruan: %5,1ekoa zen, 1991n eta %23,3koa 2011n. Hurrengo multzo euskaldunetan ere jaitsiera handiak ikusten ditugu euskararen erabileran.

Euskararen erabilerak udalerri euskaldunetako etxeetan izan duen atzerakadak azken hamarkadan hartu du indar gehien, 1991-2001 hamarkadan ere gertatu zen arren.



DD. Grafikoa. Etxeko hizkuntzaren bilakaera, udalerriak 1981ko dentsitate-mailaren arabera multzokatuta. EAE, 1991-2011 (nagusiki euskaraz egiten dutenak, %)

18. Taula. Etxeko hizkuntzaren bilakaera, udalerriak 1981eko dentsitate mailaren arabera multzokatuta. EAE, 1991-2011 (laburpena)

	Biztanleak (2011)	Ehunekoa (%)			Bilakaera (%)		
		1991	2001	2011	1991-2001	2001-2011	1991-2011
Euskara							
UDALERRI GUZTIAK	2.119.586	13,9	13,7	13,6	-0,2	-0,1	-0,3
Euskaldunak %90-100 (1981ean)	34.724	88,5	81,3	65,4	-7,2	-15,9	-23,1
Euskaldunak %80-90 (1981ean)	49.048	75,0	72,1	62,4	-2,9	-9,7	-12,6
Euskaldunak %70-80 (1981ean)	79.662	60,0	58,5	49,0	-1,4	-9,5	-10,9
Euskaldunak %60-70 (1981ean)	68.156	47,7	46,0	39,7	-1,8	-6,2	-8,0
Euskaldunak %50-60 (1981ean)	125.875	38,2	36,3	33,5	-1,9	-2,8	-4,7
Euskaldunak %40-50 (1981ean)	69.976	31,9	29,2	26,3	-2,7	-2,9	-5,6
Euskaldunak %30-40 (1981ean)	158.710	23,8	23,0	22,0	-0,7	-1,1	-1,8
Euskaldunak %20-30 (1981ean)	273.210	9,7	9,5	11,3	-0,2	1,8	1,6
Euskaldunak %10-20 (1981ean)	187.329	6,7	6,6	7,3	-0,1	0,7	0,6
Euskaldunak %0-10 (1981ean)	1.072.896	1,1	1,4	2,7	0,3	1,3	1,7
Euskara eta gaztelania							
UDALERRI GUZTIAK	2.119.586	8,1	8,4	7,5	0,3	-0,9	-0,6
Euskaldunak %90-100 (1981ean)	34.724	6,2	8,3	10,0	2,1	1,6	3,7
Euskaldunak %80-90 (1981ean)	49.048	10,7	12,2	10,7	1,5	-1,6	-0,1
Euskaldunak %70-80 (1981ean)	79.662	15,9	15,1	13,9	-0,8	-1,2	-2,0
Euskaldunak %60-70 (1981ean)	68.156	17,2	18,2	14,5	1,1	-3,7	-2,6
Euskaldunak %60-70 (1981ean)	125.875	19,1	18,4	14,1	-0,7	-4,3	-5,1
Euskaldunak %40-50 (1981ean)	69.976	14,9	17,0	13,2	2,1	-3,8	-1,7
Euskaldunak %30-40 (1981ean)	158.710	16,2	17,6	13,4	1,3	-4,1	-2,8
Euskaldunak %20-30 (1981ean)	273.210	12,3	12,4	9,8	0,1	-2,6	-2,5
Euskaldunak %10-20 (1981ean)	187.329	8,5	8,3	7,3	-0,2	-1,0	-1,2
Euskaldunak %0-10 (1981ean)	1.072.896	3,1	3,2	3,8	0,1	0,6	0,7
Gaztelania							
UDALERRI GUZTIAK	2.119.586	77,5	77,2	76,8	-0,3	-0,4	-0,7
Euskaldunak %90-100 (1981ean)	34.724	5,1	10,0	23,3	4,9	13,3	18,2
Euskaldunak %80-90 (1981ean)	49.048	13,8	15,0	25,0	1,2	9,9	11,2
Euskaldunak %70-80 (1981ean)	79.662	23,6	25,6	35,1	2,0	9,5	11,5
Euskaldunak %60-70 (1981ean)	68.156	34,8	35,4	43,9	0,5	8,5	9,0
Euskaldunak %60-70 (1981ean)	125.875	42,3	44,7	50,3	2,4	5,6	8,0
Euskaldunak %40-50 (1981ean)	69.976	52,9	53,2	58,2	0,3	5,0	5,3
Euskaldunak %30-40 (1981ean)	158.710	59,5	58,8	62,7	-0,8	3,9	3,1
Euskaldunak %20-30 (1981ean)	273.210	77,4	77,4	76,9	0,1	-0,5	-0,4
Euskaldunak %10-20 (1981ean)	187.329	84,1	84,5	83,5	0,3	-1,0	-0,6
Euskaldunak %0-10 (1981ean)	1.072.896	95,3	94,6	91,3	-0,7	-3,3	-4,0
Beste hizkuntza bat							
UDALERRI GUZTIAK	2.119.586	0,5	0,7	2,1	0,2	1,4	1,6
Euskaldunak %90-100 (1981ean)	34.724	0,2	0,4	1,3	0,2	1,0	1,2
Euskaldunak %80-90 (1981ean)	49.048	0,5	0,6	2,0	0,1	1,4	1,5
Euskaldunak %70-80 (1981ean)	79.662	0,5	0,8	2,0	0,2	1,2	1,4
Euskaldunak %60-70 (1981ean)	68.156	0,3	0,4	1,9	0,2	1,4	1,6
Euskaldunak %60-70 (1981ean)	125.875	0,4	0,6	2,1	0,2	1,5	1,7
Euskaldunak %40-50 (1981ean)	69.976	0,3	0,6	2,3	0,3	1,6	1,9
Euskaldunak %30-40 (1981ean)	158.710	0,4	0,6	1,9	0,2	1,3	1,5
Euskaldunak %20-30 (1981ean)	273.210	0,6	0,7	2,0	0,0	1,3	1,4
Euskaldunak %10-20 (1981ean)	187.329	0,7	0,7	1,9	0,0	1,3	1,2
Euskaldunak %0-10 (1981ean)	1.072.896	0,5	0,8	2,2	0,2	1,4	1,7

5.5. Atalaren ondorioak labur

Duela 30 urte udalerriek zuten euskaldun-dentsitatearen arabera udalerriak multzo-katuta, bilakaera-joera argiak antzematen dira. Asko laburtuz, datuek bi joera kontrajarri erakusten dituzte:

- Abiapuntuan erdaldunenak ziren udalerriak (euskaldunen dentsitatea %30^aren azpitik zutenak) euskalduntzen ari dira: euskaraz hitz egiteko gai direnen kopuruak asko igo dira udalerri horietan eta euskararen etxeko erabilera ere igo egin da pixka bat.
- Abiapuntuan euskaldunenak ziren udalerriak, ordea, aztertutako hiru parametroetan erdaldundu egin dira azken 30 urteotan. Udalerri horietan oro har asko jaitsi dira lehen hizkuntza euskara dutenen ehunekoak eta etxean nagusiki euskara erabiltzen dutenen ehunekoak. Euskaldunen artean euskaldunenak dira, gainera (euskaldun-dentsitate handiena zutenak), gehien jaitsi direnak. Bilakaera hori 1991. urtetik aurrera sumatzen da batez ere eta azken hamarkadan hartu du indarrik handiena. Hizkuntza-gaitasunari dagokionez, 1981ean euskaldunen dentsitatea %50etik gorakoa zuten udalerri multzo guztietan jaitsi egin da euskaldunen ehunekoa azken hamarkadan, eta galera hori lehenago hasi zen %90-%100eko gunen euskaldunenean. Oro har, zenbat eta abiapuntu euskaldunagoa, orduan eta handiagoa izan da jaitsiera hori.

6.

HABITAT SOZIOLINGUISTIKOEN BILAKAERA EAEn, 1981-2011

6.1. Multzo mugikorrek habitaten bilakaera aztertzeko

Aurreko ataleko datuak ikusita, pentsatzekoa da azken 30 urteotako aldaketa-joerek EAeko habitat soziolinguistikoen osaeran aldaketak eragingo zituela. Horixe aztertu nahi dugu atal honetan.

Eranskineko E3 taulan, udalerri bakoitzean urtez urte zegoen euskaldunen %a ikus daiteke. Atal honetan habitat soziolinguistikoen bilakaera aztertzeko, honako hamar multzo hauetan sailkatuko ditugu udalerriak aztertutako urte bakoitzean:

- Euskaldunak hiztunen %90 eta %100 bitartean diren udalerriak.
- Euskaldunak %80-90 direnak.
- Euskaldunak %70-80 direnak.
- Euskaldunak %60-70 direnak.
- Euskaldunak %50-60 direnak.
- Euskaldunak %40-50 direnak.
- Euskaldunak %30-40 direnak.
- Euskaldunak %20-30 direnak.
- Euskaldunak %10-20 direnak.
- Euskaldunak %0-10 direnak.

Sailkapen hori, esan bezala, urte bakoitzean berrituko dugu. Horrela, udalerri asko multzo batean azalduko zaizkigu urte batean eta beste multzo batean hurrengoan. Horixe da, hain justu, atal honetan aztertu nahi duguna, udalerriak habitat soziolinguistiko batetik bestera nola aldatu izan diren azken 30 urteotan. Eta, ondorioz, nola habitat batzuk indartzen eta beste batzuk ahultzen joan diren. Argitu dezagun txosten honetan “habitat soziolinguistikoa” oso adiera xumean erabiliko dugula eta, zehazki, udalerrietan dagoen euskaldunen dentsitatearekin lotuko dugula zuzenean, ikuspegi teoriko batetik kontzeptuak eskatuko lukeen esanahi zabalagoa landu gabe.

6.2. Habitaten bilakaerari buruzko datuak era xehatuan antolatzeko lehenengo ahalegina taula erraldoi batzuen bidez


Horrela landutako datuekin, taula erraldoi batzuk sortu ditugu herrialdez herrialde (ikus eranskineko E12, E13, 14, eta E15 taulak). Horietan, udalerriak urtez urte zer multzotan azaltzen zaizkigun eta hamarkada bakoitzean zer-nolako bilakaera izan duten (positiboa edo negatiboa) aurkezten dugu koloreen bidez.

Taula horiei begiratu hutsarekin antzeman daiteke udalerri asko mugitu egin direla multzotik multzora. Orokorrean, goialdeko udalerriak (udalerri euskaldunenak) beheko multzoetarako joera eta euskaldun kopuruan behera egitekoa azaldu dute. Joera hori badirudi geroz eta indartsuagoa azaldu dela aztertutako 30 urteotan, eta beherakadarik handienak azken hamarkadan gertatu dira. Taularen behealdera jozten badugu, berriz, aurkako fenomeno (are eta indartsuago) ikusiko dugu: euskaldun gutxiago zituzten udalerrietan asko handitu da euskaldunen ehunekoa eta udalerriak multzoz igotzen joan dira urteak pasatu ahala, bilakaera positibo eutsi eta jarraituan.

6.3. Euskararen habitaten bilakaera zenbakitan, 1981-2011

Oraingo taula hauetan, urtez urte habitat horien pisua nola aldatu den aurkezten da, udalerri kopuruan, biztanle kopuruan eta euskaldun kopuruan. Hiru taula horietako datuei begiratuta, argi antzematen da multzo guztiak handitu direla bai udalerri kopuruan, bai biztanle kopuruan eta baita euskaldunen kopuruan ere, muturreko biak izan ezik:

- Hamar multzoen artean erdaldunena (euskaldunak %10era iristen ez ziren udalerriena) desagertu egin da. Dagoeneko ez dago ezaugarri horietako udalerri bakar bat ere EAEn. Azpimarra dezagun 1981. urtean multzo hori zela guztien artean nagusia, udalerri eta biztanle gehien biltzen zituena. Are gehiago, EAEko biztanleen erdiak baino gehiago (%52,3) euskaldun dentsitate oso txikiko (%10etik beherako) udalerri horietan bizi ziren. Gaur egun, esan bezala, desagertu egin da habitat mota hori.
- Aurkako muturrean, multzo euskaldunenak (euskaldunak %90-%100 bitartean dituzten udalerriek osatzen zutenak), atzera egin du izugarri. 1981. urtean 56 udalerri zeuden multzo horretan eta 33.605 biztanle bizi ziren horietan. Azken 30 urteotan agortzen joan da habitat hori, eta gaur egun 13 udalerri txikik besterik ez dute ezaugarri hori, eta 4.003 biztanle bakarrik bizi dira horietan. Hau esateko datu estatistikorik ez dugun arren, kontuan hartu behar da, gainera, euskaldunen dentsitatea (ia) erabatekoa den habitat horren galera-joera askoz lehenagotik zetorrela, eta 1981erako ere oso ahuldua azaltzen zitzaigula habitat hau, berez lehenago izan zenarekin alderatuta. 1981ean, izan ere, EAEko herriarren %1,6 besterik ez ziren bizi mota horretako udalerrietan. Galera-joera hori eten beharrean, ordea, sakonduz joan da azken hiru hamarkadetan, geroz eta indar handiagoarekin, gainera. 2011. urtean EAEko herriarren %0,2 bakarrik bizi dira habitat horretako udalerriren batean.



EE. Grafikoa: biztanleria habitat soziolinguistikoetan. EAE, 1981-2011

Gainerako multzoak handitu egin dira, eta udalerri eta biztanle gehiago dituzte gaur egun duela 30 urte baino. Dena den, gure arreta azken hamarkadan jarritz gero, beste bi multzo ere ahultzen ikusiko ditugu, muturretatik hurbilen dauden hurrengo biak, hain zuzen:

- Bederatzigarren multzoa (euskaldunak %10 eta %20 bitartean dituzten udalerriena) asko ahuldu da: 2001ean 43 udalerri ziren eta 2011n 22, eta guztira 944.959 biztanle bizitzetik 188.730 bizitzera pasatu dira. Egungo joerak asko aldatzen ez badira, habitat hori ere desagertu egingo da hurrengo urteetan.
- Bigarren multzoak (euskaldunak %80-%90 bitartean) gora egin du udalerri kopuruan (40 izatetik 47ra pasatu da) baina jaitsi egin da biztanlerian, 1981ko 78.201tik 2011ko 63.709ra. Multzo horrek, izan ere, udalerri txikiak irabazi ditu baina udalerri handiagoak “galdu”.

19. Taula. Habitaten bilakaera, euskaldunen dentsitatearen arabera: udalerriak. EAE, 1981-2011

	Kopuruak					Ehunekoa (%)				
	1981	1991	2001	2011	1981-2011	1981	1991	2001	2011	1981-2011
EAEko UDALERRI GUZTIAK	250	250	250	250	-	100,0	100,0	100,0	100,0	-
Euskaldunak %90-100	56	55	42	13	-43,0	22,4	22,0	16,8	5,2	-17,2
Euskaldunak %80-90	23	29	40	47	24,0	9,2	11,6	16,0	18,8	9,6
Euskaldunak %70-80	19	24	25	38	19,0	7,6	9,6	10,0	15,2	7,6
Euskaldunak %60-70	15	13	20	23	8,0	6,0	5,2	8,0	9,2	3,2
Euskaldunak %50-60	18	18	20	27	9,0	7,2	7,2	8,0	10,8	3,6
Euskaldunak %40-50	13	15	10	13	0,0	5,2	6,0	4,0	5,2	0,0
Euskaldunak %30-40	14	8	13	21	7,0	5,6	3,2	5,2	8,4	2,8
Euskaldunak %20-30	10	10	18	46	36,0	4,0	4,0	7,2	18,4	14,4
Euskaldunak %10-20	8	16	43	22	14,0	3,2	6,4	17,2	8,8	5,6
Euskaldunak %0-10	74	62	19		-74,0	29,6	24,8	7,6	0,0	-29,6

20. Taula. Habitaten bilakaera, euskaldunen dentsitatearen arabera: udalerri horietan bizi den biztanleria. EAE, 1981-2011

	Kopuruak					Ehunekoa (%)				
	1981	1991	2001	2011	1981-2011	1981	1991	2001	2011	1981-2011
EAEko UDALERRI GUZTIAK	2.141.809	2.104.041	2.082.587	2.179.815	38.006	100,0	100,0	100,0	100,0	-
Euskaldunak %90-100	33.605	30.632	21.659	4.003	-29.602	1,6	1,5	1,0	0,2	-1,4
Euskaldunak %80-90	47.067	58.024	78.201	63.709	16.642	2,2	2,8	3,8	2,9	0,7
Euskaldunak %70-80	78.721	101.811	117.963	134.592	55.871	3,7	4,8	5,7	6,2	2,5
Euskaldunak %60-70	62.000	63.369	100.489	123.646	61.646	2,9	3,0	4,8	5,7	2,8
Euskaldunak %50-60	116.360	125.229	189.777	220.875	104.515	5,4	6,0	9,1	10,1	4,7
Euskaldunak %40-50	66.341	149.929	52.872	270.466	204.125	3,1	7,1	2,5	12,4	9,3
Euskaldunak %30-40	175.338	61.841	362.329	204.142	28.804	8,2	2,9	17,4	9,4	1,2
Euskaldunak %20-30	258.324	337.001	109.098	969.652	711.328	12,1	16,0	5,2	44,5	32,4
Euskaldunak %10-20	183.182	247.979	944.959	188.730	5.548	8,6	11,8	45,4	8,7	0,1
Euskaldunak %0-10	1.120.871	928.226	105.200		-1.120.871	52,3	44,1	5,1	0,0	-52,3

21. Taula. Habitaten bilakaera, euskaldunen dentsitatearen arabera: udalerri horietan bizi diren euskaldunak. EAE, 1981-2011

	Kopuruak					Ehunekoa (%)				
	1981	1991	2001	2011	1981-2011	1981	1991	2001	2011	1981-2011
EAEko UDALERRI GUZTIAK	447.776	544.102	656.980	789.439	341.663	100,0	100,0	100,0	100,0	-
Euskaldunak %90-100	31.074	28.655	19.826	3.574	-27.500	6,9	5,3	3,0	0,5	-6,5
Euskaldunak %80-90	37.998	49.093	65.186	51.459	13.461	8,5	9,0	9,9	6,5	-2,0
Euskaldunak %70-80	56.374	75.173	85.279	96.378	40.004	12,6	13,8	13,0	12,2	-0,4
Euskaldunak %60-70	38.270	41.260	62.848	78.013	39.743	8,5	7,6	9,6	9,9	1,3
Euskaldunak %50-60	61.766	68.659	101.576	117.826	56.030	13,8	12,6	15,5	14,9	1,1
Euskaldunak %40-50	28.050	69.884	23.719	110.940	82.890	6,3	12,8	3,6	14,1	7,8
Euskaldunak %30-40	63.233	21.588	121.765	72.537	9.304	14,1	4,0	18,5	9,2	-4,9
Euskaldunak %20-30	55.703	88.063	25.189	224.571	168.868	12,4	16,2	3,8	28,4	16,0
Euskaldunak %10-20	27.730	32.928	141.611	34.141	6.411	6,2	6,1	21,6	4,3	-1,9
Euskaldunak %0-10	47.548	68.809	9.781		-47.548	10,6	12,6	1,5	0,0	-10,6

6.4. Udalerrriak multzoz nola aldatu diren azken 30 urteotan

Habitat batzuk indartu eta besteak ahuldu baldin badira, jakina, udalerri batzuk multzoz aldatzen joan direlako gertatu da. Ondorengo 22 eta 23 tauletan 1981etik 2011ra udalerriek multzoz multzo egindako ibilbidearen berri jasotzen da. Taula horietako datuak modu honetan irakurri behar dira:

- 1981. urtean, %90-%100 euskaldun zituzten udalerriak 56 ziren EAEn.
Hau izan da udalerri horien gaur arterainoko ibilbidea:
 - 56 udalerri horietatik 13k multzo berean jarraitzen dute (udalerri horietan 4.003 herritar bizi dira, 2011. urteko datuen arabera).
 - 33 udalerri %80-%90eko multzora pasatu dira (horietan 22.857 herritar bizi dira).
 - 10 udalerri, azkenik, %70-%80 multzora pasatu dira (8.992 herritar).
- 1981. urtean %80-%90^ari zegokion multzoko 23 udalerriek honako ibilbide hau egin dute:
 - 13k multzo berean jarraitzen dute (39.342 herritar).
 - 8 udalerri %70-%80koen multzora pasatu dira (10.320 herritar).
 - 2 %60-%70ekoen multzora pasatu dira (1.145 herritar).

Tankera horretan irakur daitezke taula horietako datuak multzoz multzo. Udalerrri euskaldunenei erreparatuz, argi ikusten da dentsitate handieneko udalerriak mailaz jaisten ari direla eta, oro har, zenbat eta euskaldunago abiapuntua, orduan eta orokorragoa eta handiagoa izan dela jaitsiera. Aurkako muturrean, udalerri erdaldunenak ditugu. Horietan igoerak dira nagusi; zenbat eta erdaldunagoa abiapuntua, orduan eta orokorragoa eta handiagoa igoera. Orokorrean, beraz, konbergentziarako joera erakusten dute datuek, abiapuntuan genituen muturrak desagertzera.

		Udalerrien banaketa, 1981. urteko euskaldun dentsitatearen arabera										GUZTIAK
		%90-100	%80-90	%70-80	%60-70	%50-60	%40-50	%30-40	%20-30	%10-20	%0-10	
Udalerrien banaketa, 2011. urteko euskaldun dentsitatearen arabera	%90-100	13										13
	%80-90	33	13	1								47
	%70-80	10	8	13	5	2						38
	%60-70		2	4	8	7	2					23
	%50-60			1	2	8	9	7				27
	%40-50					1	2	7	3			13
	%30-40							0	7	5	9	21
	%20-30								0	3	43	46
	%10-20									0	22	22
	%0-10										0	0
GUZTIAK		56	23	19	15	18	13	14	10	8	74	250

22. Taula. Habitaten bilakaera, euskaldunen dentsitatearen arabera: 2011ko habitat-banaketa, 1981eko habitat-banaketaren arabera. Udalerrriak. EAE, 1981-2011

23. Taula. Habitaten bilakaera, euskaldunen dentsitatearen arabera: 2011ko habitat-banaketa, 1981eko habitat-banaketaaren arabera. Biztanleria. EAE, 1981-2011

		Udalerrien banaketa, 1981. urteko euskaldun dentsitatearen arabera										GUZTIAK
		%90-100	%80-90	%70-80	%60-70	%50-60	%40-50	%30-40	%20-30	%10-20	%0-10	
Udalerrien banaketa, 2011. urteko euskaldun dentsitatearen arabera	%90-100	4.003										4.003
	%80-90	22.857	39.342	1.510								63.709
	%70-80	8.992	10.320	72.248	31.701	11.331						134.592
	%60-70		1.145	5.895	32.685	71.277	12.644					123.646
	%50-60			2.602	6.020	45.074	54.426	112.753				220.875
	%40-50					2.424	5.160	50.695	212.187			270.466
	%30-40								67.988	122.061	14.093	204.142
	%20-30									70.884	898.768	969.652
	%10-20										188.730	188.730
	%0-10											-
GUZTIAK		35.852	50.807	82.255	70.406	130.106	72.230	163.448	280.175	192.945	1.101.591	2.179.815

6.5. Aurreko ariketa bera, erabileraren bilakaeran oinarrituta

Aurreko puntuan, 2011ko hizkuntza-gaitasunaren arabera 1981ekoarekin jarri dugu harremanetan. Beheko tauletan gauza bera egin dugu, baina udalerri multzoak gaitasunaren arabera multzokatu beharrean, etxeko erabileraren arabera eginda. Taula horietako datuak aurrekoen modu bertsuan irakurri behar dira:

- 1991. urtean, etxean nagusiki euskaraz aritzen ziren herritarrek %90 eta %100 bitartean ziren udalerriak 34 ziren EAEn. Hau izan da udalerri horien gaur arterainoko ibilbidea:
 - 34 udalerri horietatik bakarrak ere ez du jarraitzen multzo berean.
 - 9 udalerri %80-%90eko multzora pasatu dira (horietan, 3.269 herritar bizi dira).
 - 14 udalerri %70-%80eko multzora pasatu dira (horietan, 8.211 herritar bizi dira).
 - 9 udalerri %60-%70eko multzora pasatu dira (horietan, 4.436 herritar bizi dira).
 - 2 udalerri, azkenik, %50-%60 eta %40-%50 multzoetara pasatu dira (534 eta 518 herritar bizi dira horietan, hurrenez hurren).

Tankera horretan irakur daitezke taula horietako datuak multzoz multzo.

Udalerriak multzokatzeko irizpidetzat hizkuntza-gaitasuna beharrean etxeko erabilera hartuz gero, euskararen etxeko erabileraren atzerakada sakona eta oso orokorra dela azaltzen zaigu lehenik. Gu orain ikertzen ari garen auziari dagokionez, hala ere, aurreko puntuko joera bera antzematen da, hots, abiapuntu erdaldunagoa zuten udalerriek joera positiboagoa azaltzen dutela (euskararen erabilerak gora egiten du pixka bat) eta abiapuntu euskaldunagoa zutenek, berriz, negatiboagoa (euskararen erabilerak behera egin du nabarmen).

		Udalerrien banaketa, 1991. urtean etxean nagusiki euskaraz egiten zutenen ehunekoaren arabera										GUZTIAK
		%90-100	%80-90	%70-80	%60-70	%50-60	%40-50	%30-40	%20-30	%10-20	%0-10	
Udalerrien banaketa, 2011. urtean etxean nagusiki euskaraz egiten zutenen ehunekoaren arabera	%90-100	-										-
	%80-90	9	-									9
	%70-80	14	3	-								17
	%60-70	9	13	10	1							33
	%50-60	1	5	6	5	2						19
	%40-50	1	2	3	2	12	6					26
	%30-40			1	1	3	5	7	2		1	20
	%20-30						2	17	8			27
	%10-20							1	2	6	3	12
	%0-10									1	86	87
GUZTIAK		34	23	20	9	17	13	25	12	7	90	250

24. Taula. Habitaten bilakaera, etxean erabilitako euskararen arabera: 2011ko habitat-banaketa, 1991ko habitat-banaketaaren arabera. Udalerriak. EAE, 1991-2011

		Udalerrien banaketa, 1991. urtean etxean nagusiki euskaraz egiten zutenen ehunekoaren arabera										GUZTIAK
		%90-100	%80-90	%70-80	%60-70	%50-60	%40-50	%30-40	%20-30	%10-20	%0-10	
Udalerrien banaketa, 2011. urtean etxean nagusiki euskaraz egiten zutenen ehunekoaren arabera	%90-100	-										-
	%80-90	3.269	-									3.269
	%70-80	8.211	1.296	-								9.507
	%60-70	4.436	13.128	36.459	8.794							62.817
	%50-60	534	2.749	9.553	20.019	3.741						36.596
	%40-50	518	1.891	2.644	2.606	58.078	50.264					116.001
	%30-40			1.623	958	1.924	39.419	50.782	9.634		1.924	106.264
	%20-30						1.163	92.860	125.343			219.366
	%10-20							3.630	5.638	114.305	183.641	307.214
	%0-10									29.078	1.289.703	1.318.781
GUZTIAK		16.968	19.064	50.279	32.377	63.743	90.846	147.272	140.615	143.383	1.475.268	2.179.815

25. Taula. Habitaten bilakaera, etxean erabilitako euskararen arabera: 2011ko habitat-banaketa, 1991ko habitat-banaketaaren arabera. Biztanleria. EAE, 1991-2011

6.6. Atalaren ondorioak labur

Aldaketa handiak gertatu dira udalerrietan herritarren hizkuntza-gaitasunari dago-kionez eta ondorioz, aldatu egin da udalerri askoren euskaldunen dentsitatea. Joerak laburtuz, esan dezakegu muturreko habitatak desagertzen ari direla EAEn. Aztertutako epealdiaren hasieran (lehenago zer esanik ez), 1981. urtean, oraindik habitat soziolinguistikoak ugariagoak ziren EAEn: bagenituen oso euskaldunak ziren udalerri dezente eta bagenituen ia euskaldunik bat ere ez zituzten udalerri asko ere. Gaur egun, 30 urteren buruan, konbergentziarako joera da nagusi, eta euskaldunik gabeko edo oso euskaldun gutxiko udalerririk (%10etik beherakorik) ez da gelditzen bat ere.

Era berean, euskaldunen dentsitate oso handiko udalerriak ere (euskaldunak >%90) desagertzen ari dira. Gutxi batzuk gelditzen dira, baina duela 30 urte genituenen laurdenak; 4.000 lagun inguru baino ez dira bizi gaur egun horrelako udalerrietan. Tarteko habitatak, beraz, indartu egin dira eta muturrekoak desagertu edo ahuldu, 2001etik aurrera, bereziki.

Multzokatzea hizkuntza-gaitasunaren arabera egin beharrean, etxeko erabilera-
ren arabera eginda ere antzeko ondorioetara iritsi gara. Kasu horretan ingurune eus-
kaldunenak ariko lirateke desagertzen (dagoeneko ez da udalerririk bertako etxeetan
euskararen erabilerak %90^a gainditzen duenik eta 3.300 lagun inguru bakarrik bizi
dira gaur egun etxean nagusiki euskara erabiltzen duten herritarrak %80-%90 diren
herrietan). Ingurune erdaldunenak ere (euskararen erabilera %10^aren azpitik dute-
nak) ahuldu egin dira pixka bat, oraindik ere nagusi izaten jarraitzen duten arren
(horrelako udalerrietan bizi dira gaur egun EAEko biztanleen erdiak baino gehiago).

7.

ONDORIOAK

7.1. EAEko udalerri euskaldunak, 2011

EAEko² 126 udalerriko gainditzen dute %70eko balioa euskararen indizean³, eta UEMaren irizpidean oinarrituz, horiek hartu ditugu txosten honetan “udalerri euskalduntzat”. Udalerririk horietan 335.729 herritar bizi dira 2011n, EAEko biztanle guztien %15,4.

Udalerririk euskaldunetako bakarra ez da 25.000 biztanlera iristen eta gehienak herri txikiak dira. Hala ere, udalerri euskaldunetako herritarren bi herenak 5.000-25.000 bitarteko udalerrietan bizi dira. Herrialdekako banaketari dagokionez, udalerri horietan bizi diren EAEko herritarren bi herenak Gipuzkoan bizi dira eta gainerako ia guztiak Bizkaian (Aramaio dugu Arabako udalerri euskaldun bakarra).

Udalerririk euskaldunen bereizgarria, nola ez, gainerako udalerriak baino euskaldunagoak izatea da. Gainerako udalerrien multzoarekiko aldeak handiak eta nabarmenak dira: hiztun guztien %72,3 dira euskaldunak udalerri euskaldunetako (gainerako udalerrietan %30,9 dira euskaldunak), %58,4k euskara dute lehen hizkuntza (%11,6k gainerako udalerrietan) eta hiztunen %56,4k etxean nagusiki euskara daramatzate (%7,5k gainerako udalerrietan).

Hala ere, udalerri euskaldunen multzoan errealitate “ez-euskaldunek” duten pisu ez da txikia: hizkuntza gaitasunari dagokionez, adibidez, herritarren laurdenak baino gehiago (%27,7) ez dira euskaldunak. Etxeko erabilerari buruzko datuek ere agerian uzten dute udalerri horietan bi hizkuntzek pisu handia dutela eta euskararen eta gaztelaniaren erabilera ez daudela oso urruti: hiztunen %47,5k diote euskaraz mintzatzen direla nagusiki euren etxean, baina %37,3 dira nagusiki gaztelaniaz egiten dutela erantzuten dutenak. Inkestetan emandako erantzunen eta benetako portaeren artean sarri askotan egon ohi den tartea aintzat hartuta, pentsa daiteke bi hizkuntzen erabilera oso parekatua egon daitekeela gaur egun udalerri euskaldunetako etxeetan.

2 Oraingoz ez da posible tankera honetako azterketa bat Nafarroa Garaiko datuekin osatzea (zer esanik ez Lapurdi, Nafarroa Behere eta Zuberokoekin). Espero dezagun hutsune hori lehenbailehen osatu ahal izatea.

3 Udalerririk baten *euskararen indizea* honela kalkulatzen da: udalerri horietan bizi diren hiztunen artean euskaldunek osatzen duten ehunekoa eta ia-euskaldunek osatzen duten ehunekoaren erdia batuta (ikus txosteneko 1.1. atala).

7.2. Aztertutako adierazleen arabera, euskarak atzera egin du udalerri euskaldunetan azken bi hamarkadotan, gainerako udalerrietan ez bezala

EAEko udalerri guztiak bi multzotan biltzen baditugu (udalerri euskaldunak batetik, euskararen indizea %70etik gorakoa duten horiek, eta gainerako guztiak bestetik), bilakaera-joera berezituak ikusiko ditugu aztertutako hiru aldagaietan:

- **Hizkuntza-gaitasuna.** EAE osoan euskaldunen kopurua nabarmenki handitu da 1981. urtetik 2011. urtera: %21,6koa zen 1981ean eta %37,2koa 2011n. Hazkunde hori, ordea, ez da homogeneousa izan, eta euskaldunen pisua asko igo da udalerri ez-euskaldunetan, 1981eko %13,4tik 2011ko %30,9ra hain zuzen; 30 urtean, beraz, bikoiztu baino gehiago egin da. Udalerri euskaldunetan, ordea, bilakaera ez da hain argia izan: igo egin zen euskaldunen kopurua 1981etik 2001era (%69,8koa izatetik %75,5koa izatera pasatu zen), baina hortik aurrera jaitsi egin da, eta 2011. urtean %72,3koa da euskaldunen kopurua.
- **Lehen hizkuntza** euskara zutenen kopuruak behera egin du orokorrean, baina beherakada hori askoz ere nabariagoa izan da udalerri euskaldunetan: 1991. urtean %68,6koa izatetik 2011. urtean %58,4koa izatera jaitsi da lehen hizkuntza euskara dutenen kopurua udalerri euskaldunetan, eta gainerako udalerrietan, %12,4tik %11,6ra hogeitazko tarte horretan bertan.
- **Etxeko erabilerari** dagokionez, udalerri ez-euskaldunetan 1991n %6,6koa izatetik 2011n %7,5koa izatera igo da etxean nagusiki euskaraz egiten dutenen ehunekoa. Bien bitartean, udalerri euskaldunetan, dezente jaitsi da nagusiki euskaraz egiten dutenen kopurua: %56,4koa zen 1991. urtean eta %47,5koa 2011. urtean.

Hiru kasuetan ere, udalerri euskaldunen eta gainerakoen arteko desberdintasunak joera bera ageri du. Azkar esateko: euskara indarra galtzen ari da udalerri euskaldunetan eta, bere ahultasunean, indarra hartzen ari da gainerako udalerrietan.

7.3. Udalerri euskaldunen barruan ere alde handiak daude: oro har, udalerri euskaldunetan izan dira galerarik handienak

Duela 30 urte udalerriek zuten euskaldun-dentsitatearen arabera udalerriak hamar taldetan multzokatuta, bilakaera-joerak are argiago azaltzen zaizkigu. Oro har, *euskalduntze*-joerak (euskaldunen ehunekoak igotzea, lehen hizkuntza euskara dutenen hazkundera eta etxean euskara darabiltenen kopuruak handitzea) indartsuagoak dira abiapuntuan erdaldunagoak diren habitatetan, eta alderantziz, zenbat eta udalerri euskaldunagoa izan, orduan eta handiagoa izan da *erdalduntzea*.

Euskaldun-dentsitate nahiko handiko udalerri multzoen artean ere alde nabarmenak daude euren bilakaeran, eta euskaldunetan euskaldunenak dira gehien galdu dutenak. Pare bat adibide: 1981ean euskaldunen dentsitatea %90-%100ekoa zuten udalerrietan euskaldunen kopurua %94,5etik %83,9ra jaitsi da 1981tik 2011rako tartean; %60-%70eko dentsitatea zutenetan, ordea, igo egin da: %63,8tik %67,9ra. Etxeko hizkuntzari dagokionez, nagusiki euskara erabiltzen dutenak 1991n %88,5 izatetik 2011n %65,4 izatera igaro dira %90-%100eko dentsitatea zuten udalerrietan, eta %47,7tik %39,7ra %60-%70ekoa zutenetan. Esandakoa: euskaldunetan euskaldunenek galdu dute gehien.

	Biztanleak (2011)	Ehunekoa (%)				Bilakaerak (%)			
		1981(*)	1991	2001	2011	1981-1991	1991-2001	2001-2011	1981-2011
HIZKUNTZA-GAITASUNA: EUSKALDUNEN %ak									
JDALERRI GUZTIAK	2.119.586	21,6	26,3	32,3	37,2	4,7	6,0	4,9	15,7
Euskaldunak %90-100 (1981ean)	34.724	94,5	94,2	90,6	83,9	-0,3	-3,6	-6,6	-10,6
Euskaldunak %80-90 (1981ean)	49.048	83,2	86,8	86,9	81,1	3,6	0,0	-5,8	-2,1
Euskaldunak %70-80 (1981ean)	79.662	73,8	78,1	77,9	73,7	4,2	-0,2	-4,3	-0,2
Euskaldunak %60-70 (1981ean)	68.156	63,8	69,2	70,9	67,9	5,4	1,8	-3,0	4,1
Euskaldunak %50-60 (1981ean)	125.875	54,8	60,4	63,2	62,0	5,6	2,8	-1,2	7,2
Euskaldunak %40-50 (1981ean)	69.976	43,8	50,1	55,4	55,8	6,4	5,3	0,4	12,0
Euskaldunak %30-40 (1981ean)	158.710	37,2	45,6	51,9	52,3	8,5	6,2	0,5	15,2
Euskaldunak %20-30 (1981ean)	273.210	22,2	28,0	35,0	40,1	5,8	7,0	5,0	17,9
Euskaldunak %10-20 (1981ean)	187.329	15,7	20,3	27,6	33,1	4,6	7,4	5,4	17,4
Euskaldunak %0-10 (1981ean)	1.072.896	4,4	8,4	15,0	22,7	4,0	6,6	7,8	18,4
LEHEN HIZKUNTZA EUSKARA DUTENEN %ak									
JDALERRI GUZTIAK	2.119.586	20,6	20,6	19,9	18,8	0,0	-0,7	-1,1	-1,8
Euskaldunak %90-100 (1981ean)	34.724	94,0	93,2	87,0	73,0	-0,9	-6,2	-13,9	-21,0
Euskaldunak %80-90 (1981ean)	49.048	83,2	82,8	80,2	71,0	-0,4	-2,6	-9,2	-12,2
Euskaldunak %70-80 (1981ean)	79.662	71,9	72,1	68,6	60,8	0,1	-3,5	-7,8	-11,1
Euskaldunak %60-70 (1981ean)	68.156	62,1	62,9	58,6	52,2	0,8	-4,3	-6,5	-10,0
Euskaldunak %50-60 (1981ean)	125.875	54,3	53,9	50,9	45,2	-0,4	-3,1	-5,7	-9,2
Euskaldunak %40-50 (1981ean)	69.976	43,4	44,4	42,2	37,3	1,0	-2,1	-4,9	-6,1
Euskaldunak %30-40 (1981ean)	158.710	37,1	38,7	36,1	33,1	1,6	-2,6	-3,0	-4,0
Euskaldunak %20-30 (1981ean)	273.210	21,3	20,6	19,6	18,9	-0,7	-1,0	-0,7	-2,4
Euskaldunak %10-20 (1981ean)	187.329	14,7	14,1	13,2	12,4	-0,6	-0,9	-0,7	-2,2
Euskaldunak %0-10 (1981ean)	1.072.896	3,2	3,2	3,4	4,0	0,0	0,2	0,6	0,8
ETXKO ERABILERA: NAGUSIKI EUSKARAZ HITZ EGITEN DUTENEN %ak									
JDALERRI GUZTIAK	2.119.586		13,9	13,7	13,6		-0,2	-0,1	-0,3
Euskaldunak %90-100 (1981ean)	34.724		88,5	81,3	65,4		-7,2	-15,9	-23,1
Euskaldunak %80-90 (1981ean)	49.048		75,0	72,1	62,4		-2,9	-9,7	-12,6
Euskaldunak %70-80 (1981ean)	79.662		60,0	58,5	49,0		-1,4	-9,5	-10,9
Euskaldunak %60-70 (1981ean)	68.156		47,7	46,0	39,7		-1,8	-6,2	-8,0
Euskaldunak %50-60 (1981ean)	125.875		38,2	36,3	33,5		-1,9	-2,8	-4,7
Euskaldunak %40-50 (1981ean)	69.976		31,9	29,2	26,3		-2,7	-2,9	-5,6
Euskaldunak %30-40 (1981ean)	158.710		23,8	23,0	22,0		-0,7	-1,1	-1,8
Euskaldunak %20-30 (1981ean)	273.210		9,7	9,5	11,3		-0,2	1,8	1,6
Euskaldunak %10-20 (1981ean)	187.329		6,7	6,6	7,3		-0,1	0,7	0,6
Euskaldunak %0-10 (1981ean)	1.072.896		1,1	1,4	2,7		0,3	1,3	1,7

*) Lehen hizkuntzari buruzko datua 1986koa da.

26. Taula. Hizkuntza-gaitasunaren, lehen hizkuntzaren eta etxeko hizkuntzaren bilakaera, udalerriak 1981eko dentsitate mailaren arabera multzokatuta. EAE, 1981-2011 (laburpena)

7.4. Hamarkadakako irakurketa bat: euskararen atzerakako joera geroz eta indartsuago udalerri euskaldunetan

Txosten honetan deskribatu ditugun joeren erritmoa ez da berdina izan hamarkadaz hamarkada. Hizkuntza-gaitasunaren bilakaerari dagokionez:

- 1981-1991 tartean hizkuntza-gaitasunak gora egin zuen udalerri euskaldunetan ere (multzo guztietan, %90-%100eko dentsitatea zutenetan salbu: multzo horretan egonkor jarraitu zuen). Hamarkada horretan, igoerak handiagoak izan ziren tarteko multzoetan (%20-%70 bitarteko dentsitatea zutenetan) muturreko multzo euskaldunago edo erdaldunagoetan baino.
- 1991-2001 tartean, dentsitate handieneko multzoak (%90-%100) beherako joera argia hartu zuen. Hurrengo biak (%80-%90 eta %70-%80) egonkor azaltzen zaizkigu. Gainerakoetan igoerak jarraitu egiten du, baina, hori bai, horien barruan ere gune erdaldunenetan igoera biziagoa da euskaldunagoetan baino.
- 2001-2011. Jaitsierak ageri dira 1981ean, abiapuntuan alegia, %50eko dentsitatea gainditzen zuten multzo guztietan. Horien barruan, oro har, zenbat eta abiapuntu euskaldunagoa izan, orduan eta galera handiagoak gertatu dira. Abiapuntuan erdaldunenak ziren hiru multzoetan igoerak indartsu jarraitzen du, aurreko hamarkadako erritmo bertsuan. Tartean gelditzen diren bi multzoetan ez dago gorabehera esanguratsurik.

Gune euskaldunagoetan arreta jarritz, euskaldunen kopuruak geroz eta azkarrago ari dira behera egiten hamarkadatik hamarkadara aztertutako 30 urteetan. Lehen hizkuntzaren eta etxeko erabileraren ataletan ere, 2001-2011 bitarteko galera handiagoa da gune euskaldunetan, aurreko hamarkadakoa baino. Badirudi, beraz, udalerri euskaldunen erdalduntzea geroz eta azkarrago gertatzen ari dela.

7.5. Habitaten bilakaera: muturreko habitatak agortzen

Zonalde erdaldunenak euskalduntzen eta euskaldunenak erdalduntzen ari dira, eta EAEko zonaldeen aniztasun soziolinguistikoa murrizten ari den bitartean, litzakeela erakusten dute datuek. Joerak laburtuz, esan dezakegu muturreko habitatak⁴ desagertzen ari direla EAEn. Aztertutako epealdiaren hasieran (lehenago zer esanik ez), 1981. urtean, habitat soziolinguistikoa ugariagoak ziren EAEn: bagenituen (ia) erabat euskaldunak ziren udalerri dezente eta bagenituen (ia) euskaldunik bat ere ez zuten udalerri asko ere. Gaur egun, 30 urteren buruan, konbergentziarako joera da nagusi, eta euskaldunik gabeko edo oso euskaldun gutxiko udalerriak (%10etik beherakorik) ez da gelditzen bat ere. Era berean, euskaldunen dentsitatea oso handia zen udalerriak ere (euskaldunak >%90) desagertzen ari dira. Gutxi batzuk gelditzen dira, baina duela 30 urte genituenen laurdenak; 4.000 lagun inguru baino ez dira bizi gaur egun horrelako udalerrietan (30 urte lehenago 33.605 lagun bizi ziren >%90 dentsitateko udalerrietan). Tarteko habitatak, beraz, indartu egin dira eta muturrekoak desagertu edo ahuldu, 2001etik aurrera, bereziki.

Multzokatzea hizkuntza-gaitasunaren arabera egin beharrean, etxeko erabileraren arabera eginda ere, antzeko ondorioetara iritsi gara. Euskararen erabilera-ingurune euskaldunenak agortuz joan dira azken bi hamarkadetan, eta dagoeneko ez da udalerri bertako etxeetan euskararen erabilerak %90^a gainditzen duenik (34 udalerri zuten ezaugarri hori 1991. urtean, eta 15.369 lagun bizi ziren horietan). Gaur egun, 3.300 lagun inguru bakarrik bizi dira etxean nagusiki euskara erabiltzen duten herritarrak %80-%90 diren 9 herrietan (1991. urtean 57 udalerri ziren etxean nagusiki euskara erabiltzen zuten herritarrak %80tik gora zirenak, eta 31.758 lagun bizi ziren horietan). Ingurunerik erdaldunenak ere (euskararen erabilera %10^aren azpitik dutenak) ahuldu egin dira pixka bat, oraindik ere nagusi izaten jarraitzen duten arren (horrelako inguruneetan bizi dira gaur egun EAEko biztanleen erdiak baino gehiago).

7.6. Azken hitzak udalerri euskaldunen garrantziari buruz

Gure ikergaitik kanpo gelditu da beste errealitate batzuen azterketa. Zalantzarik ez dugu azken 30 urteotan EAEko udalerri euskaldunetan ere igo egingo zela ziurrenik euskarak hainbat alorretan hartzen duen lekua, erabilera formalarekin lotutakoetan bereziki (Udalekiko harremanean, irakaskuntzan, osasun zerbitzuetan...) eta jaitsi egingo zela guk aztertu ez ditugun beste hainbatetan ere. Xabier Bengoetxeak oso ikerketa baliagarria⁵ egin du gaiari buruz Tolosaldeako hainbat arnasgunetan, eta hor ikus daitekeenez, udalerri euskaldunetako euskararen atzerakada prozesua sakona eta zabala da, guk aztertutako hiru aldagaiak baino alderdi gehiago hartzen dituen.

Edonola ere, guk landu ditugun hiru aldagaiak, gutxi izanda ere, ez dira garrantzirik gabeak hizkuntza baten egoera soziala aztertzeke eta datuek deskribatzen duten bilakaerak irudi nahiko koherentea osatzen du: gainerako udalerrietan ez bezala, euskarak atzera egin du udalerri euskaldunen multzoan 1991. urtetik eta, batez ere, 2001. urtetik aurrera.

4 Argitu dezagun txosten honetan "habitat soziolinguistikoa" terminoa oso adiera xumean erabili dugula eta, zehazki, udalerrietan dagoen euskaldunen dentsitatearekin lotu dugula zuzenean, ikuspegi teoriko batetik kontzeptuak eskatuko lukeen esanahi zabalagoa landu gabe.

5 Bengoetxea Muxika, Xabier (2012): "Arnasguneak. Ezaugarriak. Zenbait arnasguneren egoeraren behaketa". *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, 85 (75-118).

Udalerri erdaldunagoen *euskalduntze*-joera eta udalerri euskaldunen *erdalduntze*-joera, bi joera horiek aintzat hartuta batetik, eta gune euskaldunek eta erdaldunek EAE-ko biztanleria osoaren baitan osatzen duten alorra kontuan hartuta bestetik (gogoratu udalerri euskaldunetan herritar guztien %15,4 besterik ez direla bizi), esan behar da EAE bere osotasunean ikusita, ikuspegi kuantitatibo hutsez, “handiagoa” dela gune erdaldunagoetan gertatu den euskalduntzea gune euskaldunagoetan gertatu den erdalduntzea baino. Labur esanda, estatistiketan euskaldun gisa zenbatzen diren askoz ere hiztun gehiago dira udalerri erdaldunagoetan “irabaziak” dentsitate handiko udalerri euskaldunetan “galduak” baino.

Hori auzitan jarri gabe, ordea, ez daiteke pentsa hiztun batzuen eta besteen, habitat batzuen eta besteen garrantzia berbera denik hizkuntzaren egungo osasuna eta bizi-indarra neurtzerakoan eta euskararen etorkizuna bermatzerakoan. Txosten honen helburuetatik kanpo gelditzen da gai horretan sakontzea. Amai dezagun, hala ere, Mikel Zalbidek arnasguneen inguruan egindako aipamen bat hona ekarriz:

“Zer da arnasgunea? (...)”

Euskaraz nolabait esateko, demografia aldetik euskara “bere kabian” sentitzen den bilgunea, inork xaxatu eta eraso gabe “etxeko jaun” sentitzen den eremua. Hori da, funtsaren funtsean, Fishman-en *physical breathing space* edo arnasgunea.

Euskaldunak euskaldunekin euskal giro sendoan bizi diren lekuetan, gurasoen hizkuntza belaunez belaun eskuratzen den lekuetan, hizkuntza-plangintzarik eta inolako interbentzio berezi (zenbaitentzat “xelebre”)-rik gabe diharduten ingurumenetan, horietan dago euskara bizien. Hor du euskarak osasunik hoberena. Hori da euskal arnasgune petoa, hizkuntzaren belaunez belauneko transmisioa bere betean (beste leku gehienetan baino askoz nabarmenago) segurtatzen duena.

Aparteko antolamendurik gabe ikasten dute horietan haur txikiek bertako hizkuntzan. Hala ikasten dute hitz egiten. Lehenik hitz egiten eta gero, eskola eta abar lagun, irakurtzen, idazten eta bertan ahoz aho dabilen hizkuntza horren errejistro eta aldaera jaso, landu, formalizatuagoak erabiltzean.

Hori da osasun oneko hizkuntzen belaunez belauneko jarraipen-bide normala, prototipikoa. (...)”

Lehentasuna dute, horregatik, hizkuntzari bizirik eutsi nahi bazaio eta indarberritu egin nahi bada. Horiek dira, Fishman-en eta beste zenbaiten ustean, hizkuntza indarberritzeko saioaren abiaburu natural eta baliagarrienak. Hori gabeko normalakuntza ez da normalakuntza. Ingurumen horien zaintza-ardura bigarren edo hirugarren lehentasun-mailara daramana ere ez.”⁶

6 Zalbide, Mikel (2008): “Arnasgunea: zenbait gogoeta”. Argitaratu gabea, guk Xabier Bengoetxearen aipatu artikulutik hartu dugu aipamena.

8.

ERANSKINAK

E1. Taula. Hizkuntza-gaitasuna, herrialdeka, eskualdeka eta udalerrika. EAE, 2011

	Kopuruak				Ehunekoa (%)				Euskararen indizea (%)	UEMAko kide gaur egun?
	Hiztunak	Euskaldunak	la-euskaldunak	Erdaldunak	Hiztunak	Euskaldunak	la-euskaldunak	Erdaldunak		
EAE	2.119.586	789.439	541.562	788.585	100,0	37,2	25,6	37,2	50,0	
ARABA	311.624	74.383,0	81.299	155.942	100,0	23,9	26,1	50,0	36,9	
Arabako Ibarrek	5.840	996	1.469	3.375	100,0	17,1	25,2	57,8	29,6	
Añana	167	31	30	106	100,0	18,6	18,0	63,5	27,5	
Armiñón	196	24	60	112	100,0	12,2	30,6	57,1	27,6	
Berantevilla	466	69	94	303	100,0	14,8	20,2	65,0	24,9	
Erriberabetia	1.387	317	377	693	100,0	22,9	27,2	50,0	36,4	
Erriberagoitia	846	141	264	441	100,0	16,7	31,2	52,1	32,3	
Gobiaran	1.092	171	252	669	100,0	15,7	23,1	61,3	27,2	
Kuartango	337	74	100	163	100,0	22,0	29,7	48,4	36,8	
Lantaron	923	117	200	606	100,0	12,7	21,7	65,7	23,5	
Zanbrana	426	52	92	282	100,0	12,2	21,6	66,2	23,0	
Arabako Lautada	249.108	56.992	65.209	126.907	100,0	22,9	26,2	50,9	36,0	
Agurain	4.810	1.413	1.257	2.140	100,0	29,4	26,1	44,5	42,4	
Arratzu-Ubarrundia	974	281	224	469	100,0	28,9	23,0	48,2	40,3	
Asparrena	1.653	533	372	748	100,0	32,2	22,5	45,3	43,5	
Barrundia	910	308	209	393	100,0	33,8	23,0	43,2	45,3	
Burgelu	621	161	169	291	100,0	25,9	27,2	46,9	39,5	
Donemiliaga	717	204	145	368	100,0	28,5	20,2	51,3	38,6	
Dulantzi	2.864	882	856	1.126	100,0	30,8	29,9	39,3	45,7	
Gasteiz	232.827	52.298	60.851	119.678	100,0	22,5	26,1	51,4	35,5	
Irufia Oka	2.985	694	952	1.339	100,0	23,2	31,9	44,9	39,2	
Iruraitz-Gauna	560	149	133	278	100,0	26,6	23,8	49,6	38,5	
Zalduondo	187	69	41	77	100,0	36,9	21,9	41,2	47,9	
Arabako Mendialdea	3.155	665	663	1.827	100,0	21,1	21,0	57,9	31,6	
Arraia-Maeztu	720	168	164	388	100,0	23,3	22,8	53,9	34,7	
Bernedo	576	112	123	341	100,0	19,4	21,4	59,2	30,1	
Harana	286	40	36	210	100,0	14,0	12,6	73,4	20,3	
Kanpezu	1.105	272	247	586	100,0	24,6	22,4	53,0	35,8	
Lagran	182	20	40	122	100,0	11,0	22,0	67,0	22,0	
Urizaharra	286	53	53	180	100,0	18,5	18,5	62,9	27,8	
Errioxa Arabarra	11.326	2.442	2.477	6.407	100,0	21,6	21,9	56,6	32,5	
Bastida	1.459	441	385	633	100,0	30,2	26,4	43,4	43,4	
Bilar	348	74	55	219	100,0	21,3	15,8	62,9	29,2	
Ekora	288	39	55	194	100,0	13,5	19,1	67,4	23,1	
Eltziego	1.038	208	216	614	100,0	20,0	20,8	59,2	30,4	
